

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko uztailaren 6a • II. urtea • 29. zenbakia • DOAN BANATZEKOA



## AMAIA ILARDUIA

*"Gaur egun 207 landa-turismo daude Autonomia Erkidegoan, hamazazpi Deba arroan" /10*

## KIROLAK

Aretxabaletarrek herri arteko pilota finala jokatu dute domekan /8

## Goienka2a

Herriz herriko udako kultura eskaintzaren erreposoa

## HHI: HELDUEN HEZKUNTZA IRAUNKORRA

# Helduen eskolak ibarrean

Iraganeko ikasketak alde batera utzi edo ikasteko aukerarik izan ez zuten egungo 18 urtetik gorakoek hezkuntza zabalagoa jasotzeko bigarren aukera dute. 80ko hamarkada bukaeran Debagoieneko herri batzuetan behin-behineko

neko eskolak ematen hasi ziren, batez ere udalek eta eskolek hauei utzitako egoitzetan, eta Arrasaten, 1987an, Helduen Hezkuntza Iraunkorreko (HHI) egoitza bat zabaldu zuten. Apurka, eskaintza herri gehiagotara hedatu zen. /2-3

## ESKORIATZA

### Fagor Automotion kooperatibak lantegia eraikiko du industrialdean

Fagor Automotion kooperatibak lantegi berria egingo du Eskoriatzako industrialdean, Fagor Ederrenaren aurrealdean, hain justu. 1000 metro koadroko lursaila hartuko du lantegiak. Hil honetan lor-

tuko dute eraikitze baimena eta, behin baimena lortuta, seguru asko abuztua baino lehen hasiko dira obrak. Bi urte baino lehen fabrika berria prest izango litza-teke. /5



## Arantzazuren 500. urteurrena

**F**rantziskotarrek 500 urte beteko dituzte aurten Arantzazuko santutegira iritsi zirenetik, eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuko dituzte abuztuaren 15ean hasi eta datorren urteko irailaren 9ra bitartean. Martitzenean aurkeztu zituzten ekitaldiok santutegian bertan. Ospakizunetan herritar guztiek parte hartzea nahi dute. Horregatik, Arantzazuko Adiskideen Elkartearen izeneko taldea sortu gura dute. /3

## ARRASATE

### Batzar Nagusiak, 23 urte geroago

Gipuzkoako Batzar Nagusia Arrasaten elkartu zen astelehen goizean. Arrasateko alkateak, Xabier Zubizarretak, udaletxearen atarian egin zien ongietorria Gipuzkoako diputatu nagusi Roman Suduperi eta Batzar Nagusiko buru Iñaki Alkizari. Euskal presoen senideak ere hurbildu ziren. Bileran gai bakarra eztabaidatu eta onartu zen; sozietateen gaineko zergari aldaketak egitea onartu zuten batzarkideek. /3



Batzarkide, diputatu eta zinegotziak Arrasaten elkartu ziren.

UBANE MADERA

Basabe Pol. F2 - Tel: 943 79 81 66 - E-mail: ofiservis@interbook.net - ARETXABALETA

Inpresio Digitalen Zerbitzuak

**OFISERVIS**

- Kartelak, Posterrak, koloretan mugarik gabeko neurrietan
- Bukaerak: Kartoi-luma, plastifikazioak, enmarkazioak
- Euskarriak: Argazki papera, biniloa, mihisea, banderaxoa, adhesiboa, poliester argiduna, e.a.

ORAIN! Deba bailaran!

PC - MAC

# Helduen es

## Gaztaroan ez ezik, gerora ere badago ezagutza handiagoa batzeko astia

IKER BARANDIARAN

Iranean ikasketak alde batera utzi edo ikasteko aukerarik izan ez zuten egungo 18 urtetik gorakoek hezkuntza zabalagoa jasotzeko bigarren aukera dute ibarrean. 80ko hamarkada bukaeran Debagoieneko herri batzuetan behin-behineko eskolak ematen hasi ziren, batez ere udalek eta eskolek hauei utzitako egoitzetan, eta Arrasaten, 1987an, Helduen Hezkuntza Iraunkorreko (HHI) egoitza bat zabaldu zuten. Poliki-poliki, eskaintza hazi eta herri gehiagotara hedatu zen ekimena.


Egun, ibarrean dagoen helduentzako eskaintza bi herritan zentralizatuta dago: Arrasaten eta Bergaran, hain justu ere. Arrasatekoak Aretxabaleako eta Eskoriatzako ikasle eta eskolak bere gain hartzen ditu.

Pasa den ikasturtean bederatzirakasle 180 ikasleri eskolak eman zizkieten Aretxabaleako Institutuan, Eskoriatzako Udalaren lokaletan eta Arrasateko Ferrerías kaleko HHIn egoitzan. Bergarako egoitzak, berriz, Soralezeko, Oñatiko eta Antzuolako eskolak bere gain hartzen ditu. Hain zuzen ere, bukatu berri den ikasturtean, hamabi irakasle 190 ikasleri eskolak eman zizkieten Soralezeko Papategi kaleko egoitzan, Oñatiko Institutuan, Antzuolako Errekalde auzoko udaleko lokaletan eta Bergarako Irizar jau-regian.

HHI sortu eta zabaldu zenetik hona denbora luzea pasa bada ere, herritar askok ez ei dute egoitza horien eskaintzaren berririk. Herri bakoitzeko beharren arabera bada ere, bigarren hezkuntzarainoko ikasketak jaso daitezke, eta baliteke, datorren ikasturteetik aurrera, unibertsitatera sartu ahal izateko azterketendako prestaketa ere eskaintzea.

Bestalde, matrikulatutako ikasleen gehiengoa 18 urte arte 30erainokoa ei da. Kasu gehienetan, euren garaian ikasi ez zutena jorrazteko asmoarekin joaten dira, irtenbide profesionala hobetu eta lan hobeak eskuratzeko.

Titulu akademikoa ateratzera doazenak gehiengoa badira ere, beste ikasle batzuk ere badihardute HHIn: hain justu ere, ikasle fidelenak, inoiz kalerik egiten ez dutenak, berrogei urtetik gorakoak, alegia. Horien artean, batzuk gaztaroko irakaspenak gogoratzera joaten dira, eta beste batzuk, berriz, alfabetatzera, hau da, irakurtzen, idazten edo zenbaketak egiten ikastera. Horieta batzuk hasieran lotsatu egiten diren arren, gehienak, taldea ezagutu eta eskolak hasi orduko, ez dute inoiz kalerik egiten. Are gehiago, horietako askok eguneko ordu hobeena HHIn pasatzen dituztela esaten dute. "Azken batean, ikasteaz gain, harremanak lantzen dituzte, lagunak egiten dituzte eta gustura etortzen dira zerbait desberdina egitera". Azkenaldian, gainera, kanpotar askotxo gaztelania ikasten ari dira: besteak beste, marokorak, pakistandarrak, txinatarrak eta hegoamerikar batzuk.



HHIko ikasleak pozik daude eskola hauetan ikasitakoarekin baita giroarekin ere.

IKER BARANDIARAN




**MIREN L. ARETXAGA**  
(Bergara)

Batez ere, lehen ikasitakoa gogoratzeko etorri nintzen irailan helduen eskolara. Orain dela 20 urte Administrari Laguntzaile ikasketak egin nituen, eta aurten Bigarren Hezkuntzako graduatua egin dut. Oso gustura ibili naiz eta ikastaroa motza egin zait. Orain badaukat maila beste zerbait ikasteko.




**EUGENIO CABO**  
(Bergara)

LH ateratzearen etorri nintzen eskolara, gauza batzuk ikastearren, alegia. Eibarko Armeria Eskolan LHko titulua ateratu dut. Denetik ikasi dut helduen eskolan; niri matematikak eta horrelakoak interesatzen zitzaizkidan. Irailan ikusiko dut ikasten segitu edo ez.



**ARTIMIA FERNANDEZ**  
(Arrasate)

Bi urte daramatzat Arrasateko HHIn, txikitik ikasitako Lehen Hezkuntza gogoratzen eta gauza berriak ikasten, euskara barne. Oso pozik nago, hemen eguneko bi ordu onenak igarotzen ditudalako. Ikasleok oso harreman ona daukagu eta irakasleak ere oso jatorrak dira.



**DIEGO LOPEZ**  
(Arrasate)

Lau urte daramatzat Arrasateko HHIn ikasten eta oso gustura nabil. Batez ere, irakurtzen, idazten eta zenbaketak egiten nabil. Ikasteko gogo handia daukat eta jarraitu egingo dut. Bestela, giro ona dago; egunero bi ordu egiten ditut eta kalean baino hobeto nago, lagun pila bat egin ditut dagoeneko.



**RUBEN RUIZ**  
(Eskoriatza)

Eskoriatzako izan arren, sarri, laneko txandean arrebata, Arrasateko zentroa etortzen naiz. Nire garaiko ikasketak osatzea ahal izateko prestazko nabil. Ikasturte bat egin dut eta datorren urtean jarraitu gura nuke. Gure garaiko irakasleek laguntzen digute.

# Olak

**ALICIA JAUREGIALTZO/Arrasateko HHIko irakaslea**

*“HHIko irakasleok estres txikiagoa izaten dugu”*

**A**licia Jauregialtzo arrasatearra da eta zenbait urtean Gasteizko ikastetxeetan lanean ibili ondoren, azkeneko bi ikasturteak Arrasateko HHIko egoitzan pasa ditu, oso gustura, gainera, antza denez.

Noiztik zabilta irakasle lanetan Arrasaten HHIko egoitzan?

Bi ikasturte egin ditut Arrasaten lanean eta oso gustura ibili naiz. Datorren urtetik aurrera, ordea, banoa beste leku batera, baina baliteke gerora hona bueltatzea. Egia esan, oso gustura ibili naiz hemengo ikasle eta irakasleekin. Oso giro ona dago eta ikasleekin oso hartu-eman estua lortu dut.

Aurretik beste ikastetxe batzuetan ibilitakoa zara, ezta?

Bai, hala da. Aurrez ohiko eskoletan lan egin dut, Gasteizen lan justu, eta gerora, hona etorri nintzen.

Zein irakasgai eman dituzu bi urte hauetan?  
Arrasaten jardun dut, arratsaldez soilik, eta ia benetarik eman dut: matematika, biologia, euskara... Horrez gain, txinatar bati gaztelaniazko eskolak eman dizkiot, eta talde bati alfabetatze eskolak ere



**“Oso gustura ibili naiz hemengo ikasle eta irakasleekin. Giro oso ona dago eta gainera ikasleekin oso harreman estua lortu dut. Horrek asko balio du”**

eman dizkiot.

**Zenbat irakaslek diharduzue Arrasateko HHIko egoitzan?**

Aretxabaletan eta Eskoriatzan ematen diren eskolak Arrasateko egoitzaren mende daude, eta hiru herri horietan guztira bederatzi irakasle gabilta lanean.

**Bestalde, zenbat ikasle dituzue?**

Bukatu den ikasturtean, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzan 180 pertsona matrikulatu ziren. Izena ematera Arrasatera etorri behar dute. Gero, ordutegiak ikusita, aukeratu egin behar dute.

**HHIko eskolaz gain, ohikoetan ere irakasle ibili zara. Zein desberdintasun nagusi ikusten dituzu horien artean?**

Batik bat, HHI askoz arinagoa dela. Ez dago konparatzerik. Eskoletara joatea ez da hain derrigorrezkoa.

Ikasleen motibazioa askoz handiagoa da; datozenak nahi dutelako etortzen dira, ez ditu inork behartzen eta, gainera, ez dago gurasorik. Ikasleek irakasleenganako errespetu handiagoa dute, baita jarrera hobea ere. Taldeak txikiagoak dira eta orokorrean irakasleok estres txikiagoa daukagu.

## Hezkuntza maila Debagoienera (10 urtetik gorakoak)

	Denera	Alfabetatu gabeak	Ikasketarik gabeak	Aureskola eta Lehen Hezkuntza
ANTZUOLA	1.786	26	74	889
ARETXABALETA	5.426	44	352	2.484
ARRASATE	22.653	172	843	11.127
BERGARA	14.072	95	1.258	6.425
BILGETA	899	4	2	523
ESKORIATZA	3.723	46	80	2.133
LENTZ GATZAGA	230	2	32	94
OLATI	9.648	72	84	5.414
DEBAGOIENA	58.437	461	2.725	29.089
GIPUZKOA	619.899	4.238	35.440	298.228

Iturria: Eustat, 1996ko datuak.

Ikasle langileen esanetan, irakasle fidelenak eta finenak euren ikasketak hobetu edo alfabetatu gura duten nagusiak dira, 40 urte artetik 60 urte bitartekoak batez beste. Hala ere, horietako askok izena emateko lotsa izaten dute. “Askok senitarteko, lagun eta ezagunen ustezko erantzun ezezkorren aurka borrokatu behar izaten dute. Hala ez balitz, askoz jende gehiago etorriko litzateke, zalanza barik”.

## Bailaran, labur

### BATZAR NAGUSIAK

#### Gipuzkoako Batzar Nagusia Arrasaten batu zen astelehenean

**G**ipuzkoako Batzar Nagusia Arrasaten elkartu zen astelehenean goizean. Arrasateko alkateak, Xabier Zubizarretak, udaletxearen atarian egin zuten ongiatorria Gipuzkoako diputatu nagusi Roman Suduperi eta Batzar Nagusiko buru Iñaki Alkizari. Euskal preso senideak ere hurbildu ziren. Mondragoen, 1877an egin behar zen Gipuzkoako herrien batzarra, baina bilera ez zen egin Foruak kendu zituztelako. 18 herri osatzen zuten batzar hura. 103 urte geroago, Gipuzkoako herrietako ordezkariak berriro elkartu ziren, eta orduan ere batzarra Arrasaten egitea erabaki zuten. 1979ko uztailaren 2an egin zen bilera hura, eta Jose Antonio Ardanza zen alkate. 22 urte igaro ondoren, Gipuzkoako Batzarra berriro itzuli dira Arrasatera. Asteleheneko bileran gai bakarra eztabaidatu eta onartu zen, sozietateen gaineko zergari aldaketak egitea onartu zuten batzarkideek. /GORKA ETXABE

### EUSKARA

#### Eguneroko bizitzan euskara erabiltzera bultzatzeko, esku orriak banatuko dira

**D**ebagoieneko euskara elkarteak batzen dituen Debagoienek, euskararen aldeko sentsibilizazio kanpainarekin jarraituz, 3.000 inprimaki banatuko ditu elkarteotako bazkideen artean. Horrez gain, hainbat toki publikotan ere banatuko dituzte esku orriak. Eguneroko bizimoduan euskara erabiltzeko hainbat aholku praktikoa ematen dira. Esaterako, erosketa zerrenda, txekeak, etxeko erantzungailu automatikoa, kutzazain automatikoa eta abar euskaraz erabiltzeko zer egin behar den azaltzen da. /ENEKO AZKARATE

### OSPAKIZUNAK

#### Frantziskotarrek Arantzazun 500 urte daramatzatela ospatuko dute

**F**rantziskotarrek 500 urte beteko dituzte aurten Arantzazuko santutegira iritsi zirenetik, eta hori ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuko dituzte abuztuaren 15ean hasi eta datorren urteko irailaren 9ra bitartean. Martitzenean aurkeztu zituzten ekitaldiok santutegian bertan. Ospakizunetan herritar guztiek parte hartzea nahi dute, frantziskotarren esanetan, fraide eta herritarren arteko harremana beti oso estua izan da eta. Horregatik, Arantzazuko Adiskideen Elkartearen izeneko taldea sortu gura dute. Santutegiaren etorkizuna bermatu, ondarea babestu eta adierazgarritasuna zaintzeko erakundea izango da. Ekitaldiei dagokienez, urte osoan erakusketa izango da ikusgai. Arantzazuko ondarearen bilduma erakutsiko dute: historia, erlijioa, kultura, artea... Batzarra ere egingo dituzte. Erlijio-gaiak landuko dituzte egingo dituzten lau batzarretan. Musika eskaintza ere oparoa izango da. Esaterako, aurtengo Donostiako Musika Hamabostaldia Arantzazun egingo da abuztuaren 17an. Hurrengo egunean Donostia Ereski abesbatzak kantatuko du. Horrez gain, Ainhoa Arteta eta Alejandro Zabala, Donostiako orfeoia, Euskadiko Gazte Orkestra eta Capilla Peñaflorida ere izango dira, besteak beste. /SAIOA OJANGUREN

### BIRZIKLAPENA

#### Merkatari eta enpresa txikiendako birziklapen zerbitzua aztergai

**K**artoia aparte biltzeko, merkataritza eta enpresa txikiei zuzendutako zerbitzu berezia abiatu zuen iaz, abenduan, Debagoieneko Mankomunitateak. Orain, berriz, zerbitzu egokia eskaintzen den edo ez, zerbitzua zelan hobe daitekeen, eta etorkizunean kristala jasotzeko zerbitzu berezia jartzea merezi duen jakin gura du Mankomunitateak. Horretarako, eskualdeko denda eta ostalaritzako establezimenduak bisitatuko dituzte hainbat lagunek ondorengo egunotan, Mankomunitatearen izenean. Ostalaritzan zenbat kristal erabiltzen den eta hondakinei zer tratamendu ematen zaion ere jakin nahi du Mankomunitateak. Helburua da jendeari hondakinak birziklatzeko erraztasunak ematea. /E.A.



ARRASATE

KIROLA URKULUN

ARRASATE

INDUSKETAK LEZE TXIKIN

## Urkuluko urtegian berriz ere egongo da piraguan ibiltzeko aukera

AMAGOIA LASAGABASTER

Murruko elkarteko piraguismo sailak duela hilabete inguru egin duen Urkulun piraguekin ibiltzeko eskaera ur partzuergoan. Oraindik ez dute baimen ofizialik jaso. Hala ere, egindako eskaeraren erantzuna baiezkoa izango dela espero dute.

Murruko eta urtegiako arduradunek behin-behineko akordioa egin dute. Hitzarmenaren, ur partzuergoak Urkulun piraguan ibiltzeko baimena eman dio Murruko. Elkarteko piraguzaleak, berriz, baimen horren erabilerari baldintza batzuk bete behar dituzte.

Erabiltzaileak Murruko piraguismo arloan federatutako txartela edukitzeaz gain, txartela onartu eraman behar du piraguan dabiltzen bitartean. Horrez gain, piragua eta noiz hartu duen jakinarazi behar du. Horretarako, Murruko Urkuluko biltegiaren berri jarriko du.

Ur Partzuergoak, bestalde, piraguan ibiltzeko eremua mugatu du. Murrukoaren biltegi paretik, Urbatzerainoko tartean bakarrik ibili ahal izango da piraguan. Beraz, baimenarekin batera baldintzak ere jarri dira.

### PIRAGUISMOA EGITEA DEBEKATUTA

Orain bost bat urte debekatu zuten Urkulun piraguismoa egitea. Izan ere, uda partean, hango hegaztiak arrautzak jartzen dituzte ur gainean, eta piraguzaleek eragiten duten mugimendarekin, hegaztiak aztoratu eta arrautzak bertan behera uzten zituzten. Orain, berriz, piraguismoa egiteko eremu mugatuarekin, hegaztiak zegoen arazoari irtenbidea eman diote.

### Zertzelada

**Ur Partzuergoak, piraguan ibiltzeko eremua mugatu du Urkulun. Murruko Koruetan daukan biltegiaren paretik Urbatzerainoko tartean bakarrik ibili ahal izango da**

Murruko, Ur Partzuergoaren erantzun ofiziala jaso bezain pronto jakinaraziko die bazkideei. Laster batean, beraz, piraguzaleek ez dute Uribarriko urtegiaraino joan beharrik izango.

UBANE MADERA

Hamabi lagun etorri dira aurten Leze Txiki kobazuloko aztarnategira indusketa lanak egitera. Horieta bi Granadakoak dira, beste bi Salamancakoak, Madrildik eta Kantabriatik etorritako lagun bana ere badago, eta gaitzakoak Euskal Herrikoak dira. Azken urteotan moduan, Alvaro Arrizabalaga arkeologoak zuzenduko du taldea.

### MOUSTIER ALDIA

Astelehenean iritsi ziren Mondragoera. Egutegian, goizean hasi eta arratsaldeko bost eta erdiak arte egoten dira Leze Txikin lanean, baita eguraldi txarra egiten badu ere. Orain zulaketa lanak egiten ari dira, Moustier aldiko lehenengo mailara iritsi dira dagoeneko, eta Alvaro Arrizabalaga adierazi duenez, "hasi dira gauzatuko batzuk agertzen, hezurak...". Uztailearen 19a arte jardungo dute lanean eta lo eta bestelakoak Udalako Ingurugiro Eskolan egiten dute.

1996tik ari da Alvaro Arrizabalaga Leze Txiki kobazuloan indusketa lanak egiten. Ordutik

ARRASATE

ESKORIATZA


## Arabako euskararen historia domekara arte izango da ikusgai

Geu Gasteiz' euskara elkarteak antolatatu du erakusketa

UBANE MADERA

tean, Arabako euskalkien mapa ere badago. Hori guztia sailka banatu dute. Guztira, 7 multzo egin dituzte, eta erromatarren garaitik hasita gaur egunera arteko historia laburbildu dute. Euskareroan (antzinako euskararen) idatzitako hilarriak ikusi ahal dira, Erdi Arotik aurrerako testamentuak, dokumentu idatziak... Euskararen alde aritu diren arabarren berri ere ematen du erakusketa (Kixoteren itzultzailea, euskarazko lehen hiztegia egin zuena...). Eta, gaur egun egoerari kasu eginez, Araban euskara gaitzaren arrazoak ere jaso ditu.

"Geu Gasteiz" euskara elkarteak antolatatu du erakusketa, bi urteko lana egin eta gero.



Egunero dozena bat lagun aritzen dira Leze Txikin indusketa lanetan.

UBANE MADERA

hona, makina bat aurkikuntza egin dituzte; baina, esanguratsuenaz iaz egin zuten: itsas maskek egindako zintzilikarioa.

Edozelan ere, Mondragoeko eta inguruotako garrantzia azpimarratu du Alvaro Arrizabalaga arkeologoak: "bai Leze Txiki eta bai Labeko Kobak ere, datu oso osagarriak eman dituzte, eta uste dut datozen urteotan informazio oso ona eskuratuko dugula, eta inguru hau interesgune oso garrantzitsua bihurtuko dela". Bere esanetan, Europako Historiaurrearen gaineko arkeologi gune garrantzitsuenetakoa da hau.

### AUZOLANDEGIAK

Bestalde, azken hiru urteotan auzolantegiak ere egin dituzte Leze Txikin. Eta horiek ere indusketa lanetan lagundu dute. Baina, aurten ez da horrela gertatu, ez dago eta auzolantegirik. Izan ere, ez dira hiru urte jarraian leku berean egin, eta Mondragoan iaz bete zituzten hiru urteak.

ARRASATE

ARGAZKI ERAKUSKETA

## Arabako euskararen historia domekara arte izango da ikusgai

Geu Gasteiz' euskara elkarteak antolatatu du erakusketa

UBANE MADERA

tean, Arabako euskalkien mapa ere badago. Hori guztia sailka banatu dute. Guztira, 7 multzo egin dituzte, eta erromatarren garaitik hasita gaur egunera arteko historia laburbildu dute. Euskareroan (antzinako euskararen) idatzitako hilarriak ikusi ahal dira, Erdi Arotik aurrerako testamentuak, dokumentu idatziak... Euskararen alde aritu diren arabarren berri ere ematen du erakusketa (Kixoteren itzultzailea, euskarazko lehen hiztegia egin zuena...). Eta, gaur egun egoerari kasu eginez, Araban euskara gaitzaren arrazoak ere jaso ditu.

## LENIZ MOTOR

JUAN M. ZUAZUBISKAR

• NEKAZARITZAKO ETA BASOGINTZAKO MAKINERIA.  
• LOREZAINZAKO.

Gipuzkoa etorbidea, 9  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 78



a larri



VIKING

STIHL

ARRASATE

LANTEGI BERRIA

## Fagor Automotonek lantegia eraikiko du Industrialdean

5.000 metro koadroko lursaila hartuko du

ENKO AZKARATE

Fagor Automotion kooperatibak lantegi berria egingo du Eskoriatzako industrialdean, Fagor Ederlanen aurrealdean, hain justu. 5.000 metro koadroko lursaila hartuko du lantegiak. Fagor Automotonek proiektua aurkeztu dio Eskoriatzako Udalarri eta Edorta Zubizarreta alkateak Goienkariari adierazi dioenez, hil honetan

emango diote eraikitzeko baimena. Behin baimena lortuta, abuztua baino lehen hasiko lirateke obrak eta bi urte baino lehen fabrika berria prest izango litzateke.

Eskoriatzako Fagor Automotonek hirugarren lantegia izango da, gaur egun Arrasaten eta Usurbilen ere badituzte eta. MCC taldearen 2001-2004 epealdirako Plan Estrategikoaren barne egingo dute Eskoriatzako lantegi berria.

Erdiko kale, 32  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 16 12

Gizonak  
Emakumeak



JANTZIAK

Ibai-arteren bazkide

## Zabalik

MIKEL  
LIZARRALDE

## Desobedienteak


Neoliberalismoaz eta ekonomiaren globalizazioaz berba egitea eta hausnartzea modan jarri da azkenaldian, nahiz eta badakigun kapitalismo basatiaren sareak aspaldi harrapatu gintuela. Diruaren poliziek aspaldi jarri zituzten sistema ekonomiko liberala —zergatik du horren zentzu ezberdina liberal hitzak politikaz, ekonomiaz edo ideologiaz ari garenean?— mundu osora zabaltzeko bideak, baina desobediente batzuk azaldu diren arte, bazirudien horrek ez zuela inolako bueltarik. Orain dela aste gutxi batzuk, baina, Bartzelonan eta Goteborgen ekonomiaren globalizazioaren eta mundializazioaren kontrako milaka manifestari nola altxatzen ziren ikusi genuen, komunikabide gehienek bi hiri horietan izandako istiluak bakarrik aipatzen bazituzten ere. Eta Bartzelonan eta Goteborgen aurretik, Seattle eta Pragan FMI eta Munduko Bankuko agintari nagusiei aurre egin zieten beste milaka lagun ezagutu genituen.

Globalizazioaren eta neoliberalismoaren aurka mugimenduak era askotako taldeak biltzen ditu: Brasilgo Lurrik Gabeko Mugimendua (munduko okupa mugimendurik handiena), Chiapas-ko zapatistak, Boliviako indigenak, Ingalaterrako *Reclaim the streets* mugimendua, Kanadako Postatxeko Langileen Sindikatua... baita sistema bidegabe hau zalantzan jarri nahi duten beste talde asko ere; baina orain dela bost bat urtera arte bakoitzak bere aldetik egin du borroka. 1996an Neoliberalismoaren eta Gizadiaren aldeko lehen topaketak Chiapasen egin zirenetik, ordea, mugimendu horiek guztiek bat egin dute, ezberdintasunen gainetik etsai bera dutelako. Utopikoak deituko dituzte, baina zer izango ginatke utopia eta itxaropenik gabe?

## Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAK bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:  
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA  
Telefonoa: 943 76 92 72  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: iritzia@goiena.com



## Atxabaltako euskerie berreskuraz

Aretxagazeta esku artean dudala, gainerako errepasso bat eginez, gauza batek harritu nau: "Boteprontoan" sailean idatzitakoak bizkaieraz (Aretxabaletan ahozko forman mantentzen den euskara mota) dagoela eta gainerako orriak euskara batuan. Horregatik nire galdera honakoa da: ezin izango litzateke *Aretxagazeta* osoa bizkaieraz idatzi?

Nire iritzian, asko hobetuko luke eta era naturalagoan irakurriko genituzke gure herriko albisteak. Honekin ez dut esan nahi euskara batuaren aurka nagoenik. Nik ere euskara batuan idatzi eta irakurtzen dut, nire eskola garaian nahikoa zelako euskara batuan hezte eta irakurtzea erderaren aurrean. Beraz, *Aretxagazeta* eitten dozuenoi, animuak eta ea animatzen zarien herriko euskerie berreskuratzen.

MIKEL E. L.  
(NAN: 44.672.984)

## Espetxetik

Aupa, Arrasate! Txus eta Premin gaituzue, Soto del Real izena duen Espainiako espetxetik. Duela aste batzuk beste bost arrasatear eta aramaioarrekin batera eraman

gintuzten gure etxeetatik. Espainolen lege-diak aitortzen dien erabateko babesarekin, bost egunez eduki gintuzten inkomunikaturik, galdeketak, mehatxuak... eta zenbaitetan kolpatuz, azkenean, gu biok, euskaldunak ikusi nahi gaituzten "hotele-*ra*" eramateko; Espetxera!!! Bitartean, esan digutenez, zuek gure herrikideak egoera hau salatzeak hainbat ekintza eta kale agerraldi egin zenituzten, eta, noski, jarraitu aurretik eskerrak eman nahi dizkizuegu guri eta gure borrokari eskaintako babesagatik, mila esker.

Hori da, hain zuzen ere, idatzi honen zergatia. Gure eguneroko borroka eten nahi dute, euskararen eta ekologiaren aldeko borroka, justizian oinarritutako bakearen aldeko borroka, subiranotasunaren aldeko borroka, independentzia eta sozialismoa helburu dituen borroka. Baina ez dira konturatzen Euskal Herriak ez duela etenik, gorabehera guztien gainetik aurrera egingo dugula, duintasunez, dagokiguna eskuratu arte.

Hauze da eskatzen dizueguna, jarrai dezazuela Euskal Herrian maitatzen eta bere alde lanean, ikastetxeetan, lantegietan, tabernetan, baserrietan... Soilik horrela, gure herria askatuta, izango gara gu ere noizbait aske, nahiz espetxetik kanpo edo espetxean izanik.

Azkenik, PNVri eta EARI zuzentzen gatzazkio ondorengoa esateko: ez dugula sinesten bake santuan, bake justuetan baizik, ez dugula morrontzan bizi nahi, askatasunean baizik, ez dugula sinesten espainolen-zuen biolentzian, gure askatasun egarrian baizik, ez dugula sinesten estatutuaren lokarrietan, Lizarra-Garazi eta burujabetzan baizik.

Agur t'erdia, euskaltzale, langile, aber-tzale, iraultzaile... laster arte. Aurrera bolie!

PREMIN SANPEDRO eta  
TXUS GOIKOETXEA.  
Soto del Realeko euskal preso politikoa.

## Aretxabaletako Kirol Elkartearen oharra

Aretxabaletako Kirol Elkarteak, UDAk, 2001eko ekainaren 22an egindako ohi-ko bilkura nagusian akordio hauek hartu ziren aho batez:

1. Gaur arte UDAk eraman duen kirol

politika onartu, hau da, jokalaria infantil mailan hartu, lan egin eta Preferent-raino promozionatu eta nesken futbol taldea sortzea bultzatu, honela Aretxabaletako futbol federatuaren eskaintza osatuz.

2. Kirol alderdian zein ekonomikoan gaur egungo Zuzendaritza batzordeak azken zazpi urteetan egin duen gestioa onartu.

Batzar nagusian bildutako jende kopuruak eta aipatutako bi puntuak onartzeak gaur egungo Zuzendaritza batzordea beste denboraldi baterako jarraitzera animatzen dute.

ARETXABALETAKO KIROL ELKARTEA  
(UDA)  
Aretxabaleta

## Istiluak jaietan

Ekainaren 25ean —astelehena—, udako solstizio-gauean eta San Joan jaietan bihotz-bihotzean, goizaldeko lau eta erdie-tan gazteria dantzan eta patxada handiz zebilen berbetan giro alaietan, eta hara non Ertzaintza sartu zen, musu-truk arrisku publikoa sortuz.

Inolako arrazoirik gabe sartu ziren Biona tabernan haginataraino armaturik, bertan zeudenak aho zabalik utziz, eta "quita esa puta música" eta "¿quién me ha llamado hijo puta?" oihukatu zuten, tabernako barraren gainean kolpeak emanez. Burua txanoekin zuten estalita, eta probokatzeko jarrera eta boterea neurrigabe erabili zituzten. Gero txosnetarantz jo zuten pilotakadaka.

Bada, jarrera autoritario, agintzaile eta despota hori salatu gura dugu; izan ere, honelako portaera deitoragarriak giza eskubideen aurka doaz, eta ez gaudela ez demokrazian ez zuzenbidezko estatuan gogorazten digute.

Beraz, dagokien agintariari eskatzen diegu neurriak har ditzatela horrelako gertakari onartezinak zigorrak gabe gera ez daitezen, eta esan gura dugu gure herriak kontrakoa behar duela, hain justu, elkarriketa, negoziazioa eta dauden gatazkak konpontzeko tratamendu sozial eta politikoa.

SINATZEN DUTEN TABERNAK; BIONA,  
IRATI, ETXERAT, BASATI, JAI-ZALE,  
ILUNTZ, EKAITZ, ITURRIOTZ.  
Arrasate

## Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## Eztabaida

**A**maitu dira oraingoz futbol kontuak. Lehiaketak, behinik behin. Hilabeteko atsedenaldiaren ostean, ordea, berriro izango dugu baloia jokoan. Edozelan ere,

duela pare bat aste, liga amaierako partiduak zirela-eta, denon ahotan izan den beste gai baten gainean eztabaidatu nahi dugu oraingoan. Hain zuzen ere, talde batek parti-

duak irabaztearren beste talde batzuegandik saria jasotzea zuzena den edo ez eztabaidatuko dugu. Urteroko kontua izan arren, polemika handiko gaia.

# Bidezkoa da futbol talde batzuegandik dirua jasotzea irabaztearren?

## Lana ondo egin eta irabazteko jokatu



GORKA  
ETXABE  
GOITBKO  
erredakziorua

**F**utbol profesionalean oso arrunta da beste talde batzuegandik dirua jasotzea; batzuetan, partidua galtzearren, eta beste batzuetan, berriz, irabaztearren. Realak Osasunari ez irabazteagatik eskerrak jaso zituen Iruñea aldean, dirurik ez zieten eman Realeko jokalariei. Hala ere, donostiarren profesionaltasuna zalantzan jarri zuten Espainia aldean. Eta zalantzazko sentimendua da, hain justu, futbolzaleei pizten zaiguna diru-sariez hitz egiten dugunean. Futbolariak nahikoa irabazten

dute euren taldeetan, eta ez dute beste batzuegandik diru gehiago jasotzeko beharrik. Ez da bidezkoa 100 milioi irabazten duen kirolari batek hamar gehiago eskuratzea beste talde batengandik. Nik neuk ere ez dut diru gehiagorik irabazten egin behar dudana egiteagatik. Eta, hain zuzen ere, hori da futbolariak egin behar dutena, lana ondo egin eta irabazteko jokatu, sari berezirik hartu barik.

Bestelako joerekin, futbola gehiago ustelduko da. Eta, laster, gaur egun irabazteagatik dirua jasotzen dutenek galtzeagatik jasoko dute. Koloreak desagertu egingo dira. Herrialdeko taldearekiko sentimenduak aldenid egingo dira. Futbolariak mertzenario bihurtuko dira. Horregatik ez da bidezkoa futbolariak inorengandik saririk jasotzea. Nahiko diru irabazten dute euren taldeetan.

Izan ere, ez da komeni ahaztea norberaren taldeak ere diru-sariak banatzen dituela. Eta hori guztia gutxi balitz, talde handien eta txikien arteko aldeak gero eta handiagoak izango dira. Eta, bestela, ikusi Atletico Madrilek liga amaieran egin duena. Tenerifek eta Betisek Madrilen jokatu zuten, Leganesen eta Getafen hain justu. Jesus Gilek bi talde horietako kirolariak, presidentea, sarrera saltzailea eta garbitzailea ere erosi zituen. Hala ere, ez zuen bere helburua lortu. Futbol talde horiek, ordea, autonomia guztia galdu zuten handiaren aurrean.

Atletico Madrileko elastikoa janztea baino ez zitzairen falta izan Leganesko eta Getafeko jokalariei. Argi geratu zen txikia ez dela ezer handiaren aurrean. Horregatik ez da ona futboleko beste talde batzuegandik dirua jasotzea partidua irabaztearren.

**"Laster, gaur egun irabazteagatik dirua jasotzen duten horiek, galtzeagatik ere jasoko dute"**

## Dirua tartean, joko garbirik ez



RAFA  
MUNGIA  
ETBKO  
kirol kazetaria

**K**irola eta bereziki futbola negozio hutsa bilakatu direnetik, botere-tsuek baliabide ugari dituzte arrakasta lortzeko. Gainsaria eta kirolak duten lotura ez da gaurkoa, eta urteetako ohitura izan diren apustueta ere, herri kirolekoak kasu, eskupekoak azaldu dira askotan. Futbola kirol guztien errege izendatu dugunez, "kutsadura" handiagoa jasan behar izan du, batez ere protagonista guztiek onartu dutelako askoren ustez iruzurra dena.

Jakina da Futbol Ligako azken jardunaldietan mugitzen den dirutzak azken sailkapena baldintzatzen duela. Kasu hauetan ere diruak agintzen du, ez bakarrik fitxaketak egiterako garaian. Federazioak, klubek eta jokalariek ondo dakite guztia isilpean gordetzea komeni zaiela, irabazteagatik banatzen diren gainsariekin ez baita inor kaltetuta ateratzen.

Futbolariak poltsikoa hetetzen du, askotan talde apalenzat hilabeteko soldata baino gehiago izan liteke eta eskupekoa. Futbolarentzat ere, orokorrean, talde guztiek azken arte zerbait jokoan izatea onuragarria da, dirua baldin bada ere.

Askorentzat iruzurra bestelako kasuetan gertatzen da, bietariko batek irabazteko jarrera erabat garbia azaltzen ez duenean arrazoi ezberdinak tartean, eta ez daukagu zertan kanpora begiratu beharrik adibideen bila. Realak ondo daki Alaves eta Osasunarekin izan duen jokaerak arerioak ere sortu dizkiola, besteak beste, Vilareal eta Oviedo.

Bestelako arazoa da eta salatu beharrekoa, galtzeagatik gain-sariak eman nahi izatea. Kirolak berezkoa duen lehiatzeko jarrera hori zapuzten baitu, kirolariak "merkantzia" hutsean bihurtuz eta jarraitzaileei sor zaien errespetua ere ahaztuz.

Interes ekonomikoak kirolaren gaitetik dauden bitartean, eta nabarmen goraka doan joera da hori, dirua alde batetik bestera bueltaka izango dugu. Hemen ere gehien duenak gehiago eskaini ahal izango du, baina negozioan bete-betean sartuta daudenek ere argitzeko asmoa azaltzen ez badute, jai dauka joko garbiak.

Tristeena da beharbada futbolari leporatzen diotela "joko zikina", profesionalizatuta dauden kirol gehienetan antzeko kasuak gertatzen direnean, denborak erakutsiko duen moduan.

**"Interes ekonomikoak kirolaren gaitetik dauden bitartean, dirua alde batetik bestera bueltaka izango dugu"**

## Gora eta Behera

### UDA HELDU DA



Udan bete-betean sartu gara, aste honetan euria egin badu ere. Eta, udarekin batera, eguraldi ona, jaiak nonahi, euskal musikaren uzta berria, eta abar etorri dira. Hori gutxi balitz, futbola amaitu da, jada ez ditugu jasan behar zapatu eta domeketako emanaldiak eta laburpenak... Gora uda!

### GOIENA TELEBISTA EZIN IKUSI



Goiena Telebista sortu zela urtebete baino gehiago pasada, eta Goiena egitasmoa udaletan aurkeztu zela gehiago oraindik. Hala ere, telebista ez da eskualde osoan ikusten. Zergatik? Bergara, Oñati eta Elgetako udalek azalpenak emateko ordua badela uste dut. Bestalde, Udako Euskal Unibertsitateari laguntzak ukatu dizkio Nafarroako Gobernuak. Zertan ari zara Sanz?



IDOIA  
OLANO  
Jarduneko teknikaria

## Koplak

### Jaietan jai?

Debagoienean herri ta auzo askotan jaiak ospatzen biztanle denei ez zaie hemen alde berdina tokatzen.

Jai gehientsuenak gure bailaran ekain eta uztailean beti bezala batzuk ospatzen ta beste batzuk lanean.

Zer antolatu ibili arren berrikuntzetan pentsatzen ez da erraza denen gustuko programarikan osatzen.

Herriko plazan musika talde ospetsu eta apartak baina jendea erakartzen du tabernetako zaratak.

Ekintzak ere jartzen dirade kultura ta kirolean zoritxarrean ikusle gutxi sarri ikuskizunetan.

Irakurlea ezin liteke jaietan beti jai hartu antolakuntzan eskua luza ta ahal dezuna gozatu.

JESUS KORTABARRIA "KAXETA"

### DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA

Iritzia emateko: iritzi@goiena.com

Zer iritzi duzu antidoping kontrolari buzuz?

**Goienkaria**  
DEBAGOIENEN ASTEKARIA

ZUZENDARIA:  
Eneko Azkarate  
ERREDAKZIO KONTSEILUA  
Edorta Mendieta,  
Miguel Angel Elkorobezibar,  
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gaintzarain,  
Ane Berebizar

PUBLIZITATEA  
Arantazu Lagunilla, Mireia  
Larrañaga, Natali Martinez,  
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martin

SAILLETAKO ARDURADUNAK  
Edu Mendibil (Kirola, Non Zer),  
Aintzane Irizar (Berri-Zakua),  
Iker Barandiaran (Asteko gaia),  
Goio Arana (Diseinua),  
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PRODUKZIOA  
Iban Arantzabal

HARPIDETZA ETA BANAKETA  
Aitziber Langaran

TESTUEN ZUZENKETA  
Sergio Azkarate, Gari Bragado

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENAKARIA: Estepan Plazaola  
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

# Aretxabaletarrak herri arteko finalean

Aretxabaleta eta Soraluze domeka goizean aurrez aurre

Aurtengo herri arteko txapelketako finalean bi talde estreinatuko dira; izan ere, Aretxabaletak lehen aldiz eskuratu du azken txanparako txartela, eta aurrez aurre egotera berean dagoen beste talde bat izango dute, Soraluze, alegia. Final handia domekan jokatu dute eta, gainera, pilotaleku ezin erakargarriagoan izango da: Donostiako Atano III.lean, hain justu ere. Norgehiagokak goizeko hamar eta erdietan hasiko dira, eta guztira hiru partidu jokatu dituzte. Kadete mailan, Andoni Altube eta Haritz Kortabarria arituko dira Aitzol Arrieta eta Jon Orbegozo bikotearen aurka. Gazte mailan, Haritz Igartua eta Odei Oionek aurrez aurre izango dituzte Jon Aranbarri eta Ladis Unanue, eta azkenik, nagusietan, Unai eta Ibon Errasti anaia aretxabaletarrek Iñaki Larramendi eta Ruben Zafirainen aurka neurtuko dituzte indarrak.

Aurten, herri arteko txapelketan hamazazpi talde hartu dute parte; federazioak hainbat arazo izan ditu taldeak eratzeko. Azkenean, aurreko urteetako lehen sailkatuek abantaila izan dute, eta Aretxabaletako pilotariek ederki aprobetxatu dute egoera hori. Final-laurdenetan azpeitiarrak izan ziren arerio, eta ber-

dinketa izan ondoren, azkenean, tanto alde handiagoa zutelako lortu zuten finalerdietarako txartela. Finalerdia azkoitiarren aurka jokatu zuten, baina haiek ez zieten euren bizilagunek bes-

teko zailtasunik jarri. Aretxabaletarrak erraz nagusitu ziren, eta domekan Donostian izango ditugu. Partidura joan nahi dutenentzako autobusak izango dira, eta domeka goizean Donos-

tiara joaterik ez duenak finalak telebistaz ikusi ahal izango ditu, Euskal Telebistako lehenengo katean, hain justu ere.

XABI URZELAI




Argazkian, herri arteko finala jokatu duten bikote atxabaletarrak.

## Oñatiko VII. Klasiko Zikloturista domekan

Berrehun bat txirindulari elkartuko dira Oñatin 117 kilometro egiteko

Oñati-Txantxiku txirindulari elkarteak zazpigarren Klasiko Zikloturista antolatuko domeka honetarako, eta antolatzaileen esanetan, aurten ere parte hartze handia izango da. Aurreko urtean berrehun bat txirindulari eman zuten izena, eta aipagarria da kanpotik etortzen den ziklista kopurua.

Irteera goizeko zortzi eta erdietan izango da, eta ibilbideak 117 kilometro ditu. Oñatiko Udaltzaren plazatik irten eta Bergara, Elgoibar, Azkoitia eta Azpeitik pasatu eta Mandubiako portua igo eta gero, Garinen mokadua hartzeko aukera izango da. Jarraian, Ormaiztegi, Zegama, Zerain eta Aztiriako gaina igaro eta gero, Udanatik Oñatira buelta. Itzulia ez da batera makala, baina bizikletan ibiltzera ohituta daudenek ez dute helmugara iristeko inongo arazorik izango. Proba hori 1995ean egin zuten lehen aldiz, eta beraz antolatzeak lan handia ematen badu ere, antolatzaileek ez dute behin ere kalerik egin. 1998an Aran-



Aurreko urtean 200 txirindulari hartu zuten parte Oñatiko proban. Ibilbidea 117 kilometrokoa izango da.

zazun izan zen helmuga, baina domeketan jende asko hurbiltzen da santutegira meza entzun edo osteratxo bat egitera, eta arazo-

ren bat edo beste izan zen. Aurten, helmuga Oñatin izango da, eta parte hartu nahi duzenok domeka goizean, irteeran bertan,

izena emateko aukera izango duzue, 2.000 pezetaren truke.

XABI URZELAI

### Kirolabur

#### ATLETISMOA/ MARIA JOSE GIL

Aurreko asteburuan Espainiako atletismo txapelketa izan zen Salamanca, eta Maria Jose Gil atleta arrasatearrak garaipena eskuratu zuen bere mailan. Guztira bi lasterketa izan ziren, eta atleta beteranoa bi lasterketetan lehena izan zen. 1.500 metroetako proban 6'6"ko denbora egin zuen, eta 5.000 metroetako lasterketa egiteko hogeita hiru minutu eta hamaisei segundo behar izan zituen.

#### TRIATLOIA/ JON APERRIBAI

Arrasateko atleta Kordoban Aizango da asteburu honetan Euskal Herriko selekzioarekin. Hantxe Espainiako triatloi txapelketa jokatu da, eta gazte arrasatearrak Euskal Herrian emaitza bikainak lortzen baditu ere, estatuko txapelketara beste helburu batzuekin joango da. Aurreko asteburuan Lekeitioko triatloian izan zen Jon, eta zortzigarren helmugaratu zuen.

#### AUTOKROSA/ ESKORIATZA

Zapatuan lasterketa ikusgarria izango da Eskoriatzan; izan ere, autokros proba jokatu da Fagor Ederlan aurreko zelaletan. Proba arratsaldeko hiruretan hasiko da eta sarrerak 500 pezeta balioko du. Aurtengo parte hartzea ez da batera makala izango, guztira 70 auto izango dira eta. Ikuskizuna, hortaz, ziurtatua dago.

#### XAKEA/ NAZIOARTEKO ZERRENDA

Uztailaren batean xakeko nazioarteko zerrenda berriak aditzera eman zituzten, eta bertan Debagoieneko lau xakelari azaltzen dira. Ibarreko lehenengoak Miguel anaia aretxabaletarrak dira. Fran Miguelek 2306 puntu ditu, eta Andoni Miguelek 2188 puntu. Ibarreko hirugarrena Luis Ortega arrasatearra da (2.155), eta laugarrena Aitor Alcaide atxabaletarra (2.107).

#### KART-AK/ ANDER CORCUERA

Ekainaren amaieran Espainiako Kart txapelketa izan zen Huelvan, eta Ander Corcuera pilotu gazteak, 125 zentimetro kubikotan, podiumeko lehen postua eskuratu zuen. Ekainaren 22an entrenamenduak izan ziren, hurrengo egunean irteerako postuak erabaki ziren, eta proba nagusia ekainaren 24an izan zen. Guztira bi lasterketa izan ziren, eta pilotu arrasatearra bietan nagusitu zuen.



Podiuma

# Jonathan Perez | REAL SOCIEDAD TALDEKO ATLETA |

Jonathan Perez 20 urteko atleta arrasatearra Gipuzkoako txapelketa da pertika jauzian. Donostian, Anoetan jokaturako txapelketa, 4 metro eta 55 zentimetroko jauzia egin zuen. Aire zabalean hartzen duen lehen garaipena da. Aurretik, lau aldiz eskuratu du Gipuzkoako txapelketa pista estalian. Domekan Euskadiko txapelketa eskuratu du, Gasteizen. Bere helburua da 4,50 metro egitea. Jonathan 1,77 metro luze da eta 73 kilo pisatzen du.



Jonathan Perezek, aire zabalean 4,41 metroko marka dauka.

**“Oraindik ere gaztea naiz eta progresatzeko aukera izango dut. Markak hobetzeko poliki-poliki joan beharra dago”**

**“Mailaz hobetzeko irten beharra dago, instalakuntza eta material aldetik hemengo kirol baldintzak nahiko eskasak direlako”**

la izango da errekorra eskuratzeko. Dena dela, bost metroko jauzi batekin gustura nago, oraingoz. Horrelako marka batek estatuko elitearen barruan sartzea ekarriko luke eta errendimendu handiko zentzorekin batera joateko aukera izango nuke ziurrenik. Aurten ondo ari naiz lehiatzen eta entrenamenduetan askotan gaintu izan dut 4,70

metroko altuera. Baina entrenamenduek eta lehiaketek ez dute zerikusirik. Markak hobetzeko poliki-poliki joan beharra dago.

**Domekan Euskadiko txapelketa jokatu da Gasteizen. Zein asmo txapelketari begira?**

Promes mailan, Jorge Garrido Realeko taldekidea izango da areriorik gogorrena. Bizkaitarra da

eta Madrilgo Blume erresidentzian ari da. Ni baino bi urte zaharragoa da eta esperientzia handiagoa duenez, nabari da. Hala ere, Donostian jokaturako azken liga jardunaldian irabazi egin nion. Ikusi behar Gasteizen zer gertatzen den. Gutxienez, 4,50 metroko marka lortzea gustatuko litzaidake. Kategoria absolutuan, bestalde, Monchu Miranda bizkaitarra izango da faborito nagusia, hark du eta Espainiako errekorra (5,91 metro).

**Arrasate Atletiko Taldean eman zenituen lehen urratsak atletismoan. Zelan hasi zinen pertika jauzian?**

Hamabost urte nituela hasi nintzen. Fernando Zufiriak animatu ninduen pertika jauzia probatzera, gimnasia ariketak egiten nahiko ona nintzela ikusita. Lehenbiziko urtean Gipuzkoako txapelketa bigarrena izan nintzen eta gero Euskadiko txapelketa izan nintzen gazte eta junior mailan.

**Aurten Realarekin fitxatu duzu. Zer moduzko esperientzia?**

Maila hobetzeko Arrasatek irten beharra dago, instalazio eta material aldetik hemengo kirol baldintzak nahiko eskasak direlako. Arrasaten, Iturripen entrenatzen naiz eta astean behin Donostiara joaten naiz. Sakrifizio handia eskatzen duen kirola izan arren, gustura nabil. Talde ona daukagu: ohorezko ligan (futboleko lehen maila izango litzatekeena) ari gara eta aurten mailari eustea lortu dugu. Euskadiko taldekako txapelketa ere irabazi dugu.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Juanito Arriaran

### Futbolaria eta entrenatzailea



Juanito Arriaran bere entrenatzaile sasoiaren, kazetari batekin.

**Burgos, Indautxu edo Alavesen jokatu zuen**


**Bihotz arazoengatik utzi behar izan zuen futbola**

**Hainbat taldetako entrenatzailea izan zen**

**M**utikotan pilotan eta futboleko aritzen zen Juanito Arriaran: “Futbolak gehiago erakartzen ninduen eta 14 urterekin UCA (Union Cerrajerena de Aprendices) taldean hasi nintzen. Aurrean jokatzeko nuen eta golegile nintzen. Behin Aloña-Mendiri 12 eta 1 irabazi genion eta zazpi gol egin nituen”. Hemezortzi urterekin Arrasateko taldean hasi zen, 3. mailan: “Taldea ederra genuen, inguruko onenetakoa”. Soldadutza egin ondoren, Burgosekin fitxatu zuen eta 2. mailara igo ziren. Jesus Errasti eta Jabier Urkiola arrasatearrak eta Joakin Armandariz eskoriatarra bere taldekideak ziren. Handik 2. mailako Indautxu taldera joan zen: “Olasoko Markesa zen presidentea eta hark jartzen zuen dirua. Ligan bigarren geratu ginen, Oviedoren atzetik, eta Eibarri hiru gol egin nizekion Garellanon (4-1)”. Indautxun, Jose Maria Guridi arrasatearra eta Pereda, Jones edo Riosekin batera jokatu zuen. Bi denboraldi eman zituen Bilbon. Gero, Alaves, Tolosa, Bergara eta Arrasateko taldeetan ibili zen. 29 urte zituela futbola utzi behar izan zuen bihotzeko arazoengatik.

Norberto Mondragonek Arrasateko entrenatzaile postua eskaini zion. Urtebete eman zuen 3. mailako taldearekin eta gero 2. erregionalean zegoen UDA taldea hartu eta 3. mailaraino igo zuen: “Orduan betetzen zen Ibarra...”. Espainiako afizionatu mailako txapelketa izan zen UDA, Murtziako Imperiali irabazi eta gero. Madrilen entrenatzaile titulua atera zuen, eta Eibar, Logroñes, Barakaldo, Mirandes eta Real Union zuzendu zituen. 1985ean futbola erabat utzi zuen eta duela hiru urte bihotzeko transplantatzaile egin zioten: “Nik zortea izan nuen eta jendea organoemaile egiteko eskatu nahi diot”. Gaur egun, futbola telebistatik jarraitzen duela dio. /E.M.

**“Bigarren mailan, Indautxu taldearekin, ligan bigarren geratu ginen, Oviedoren atzetik. Eibarri hiru gol egin nizekion behin Garellanon (4-1)”**



Juanito Arriaran • Arrasate • 1933

## Leizak irabazi zuen Elgetako lau t'erdiko pilota txapelketa

Iñigo Leiza lemoarrak 22-19 irabazi zion Ander Ageta arantzarrari Elgetako lau t'erdiko txapelketa, 23 urtetik azpikoaren kategorian. Elgetako pilotalekua jendez gainezka egon zen domeka eguerdian eta beroa izan genuen protagonista nagusienetako bat. Pilotariak 33 graduko tenperatura jasan behar izan zuten partiduan. Norgehiagokak 62 minutu iraun zuen eta 414 pilotakada zenbatu zituzten. Leiza garaile izan genuen Elgetan duela bi urte. Domekan txapela, trofeoa eta DVDa eskuratu zituen sari gisa. Kadeteen finalean, Mikel Gartzia mallabiarra Oinatz Gonzalez andoaindarrari nagusitu zitzaion, 22-16ko emaitzarekin.



**A**maia Ilarduia (Bergara, 1970) Nekazalturismoa elkarteko gerentea da orain dela bi urte ezkerro. Elkarte honetan batzen dira Euskal Autonomia Erkidegoko landa-turismo eta nekazaritza-etxe gehienak, 200 inguru. Elkarteak Donostiako Kursaalaren du egoitza. Han eskaintzen dute baserri giroko turismo mota honen gaineko informazioa, eta han bertan hartu gaitu gu ere..

ENEKO AZKARATE

### Noiz sortu zen Nekazalturismo elkarte eta zertarako?

1991ko azaroan sortu zen, eta Eusko Jaurlaritzak bultzatu zuen, hiru herrialdeetako Diputazioekin batera. Helburua, baserri edo nekazari giroko turismoa bultzatzea izan zen. Elkarte honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-turismo eta nekazaritza-etxeak daude elkartuta. Ez, ordea, Nafarroakoak edo Ipar Euskal Herrikoak. Bestalde, ez daude diren guztiak ere, baina bai gehienak, %90 inguru. Oso datu esanguratsua da, estatuko beste toki batzuekin alderatzen badugu. Gainera, hemen elkarrekin lan egitera ohi-tuagoak gaude. Esan dudana moduan, elkarre hiru administrazioak bultzatuta sortu zen eta, gaur egun, aurrekontuaren zatirik handiena, %80 inguru, Jaurlaritzak eta hiru Diputazioek estaltzen dute.

### Hain zuzen ere, Nekazaritza Sailak bultzatuta sortu ziren lehen landa-turismoak Euskadin. Zergatik?

Mendi nekazaritza da Euskadikoa. Gure baserrietako ustiaketez ez daukate zer ikusirik Espainiako hegoaldeko edo Europako erdialdeko landa-lur zabaletakoekin. Hortaz, Suitza, Aosta harana edo Belgikako ereduak jarraitu zituzten Jaurlaritzak landa-turismoa bultzatzeko. Turismo mota bat bultzatu eta baserriak bizirautea zen helburua.

### Noiz sortu zen lehen landa-turismoa?

Gauegiz-Arteagako Txopebenta izan zen lehena, eta 1990eko maiatzean sortu zen, Urdaibaiko inguru ederrean. Gaur egun 207 landa-turismo daude gure Autonomia Erkidegoan, eta horietatik 190 gure elkarteko kide dira. Esan behar da, 1990etik 1993ra bitartean sortu zirela gehienak, 103 hain justu. Bestalde, gehienak Gipuzkoan daude, hain justu, 77 landa-turismo, 16 nekazari-etxe eta 4 nekazaritza apartamentu. Bizkaian, berriz, 47 landa-turismo eta 14 nekazaritza-etxe daude, eta Araban, azkenik, 30 landa-turismo eta 5 nekazaritza-etxe. Denera, 1.800 lagunentzako tokia dago Euskadiko landa-turismo eta nekazaritza-etxeetan. Deba Arroan, 15 landa-turismo eta 2 nekazaritza-etxe daude, eta horietan, 162 lagunentzako tokia.

### Landa-turismo eta nekazaritza-etxeen gain, nekazaritza-hotelak ere badira. Zer ezberdintasun dago?

Euskadin 66 nekazaritza-hotel daude, eta gainerako hotelen araudipean egiten dute lan, baina badute berezitasunik. Esaterako, gehienez ere, 40 lagunentzako tokia izan behar dute. Landa-turismo eta nekazaritza-etxeetan, berriz, gehienez sei logela bikoitz izan behar dituzte, hau da, 12 lagunentzako tokia. Bestalde, landa-turismoen eta nekazaritza-etxeen artean ere bada



ENEKO AZKARATE

## Amaia Ilarduia

NEKAZALTURISMO ELKARTEKO GERENTEA

# “Gaur egun 207 landa-turismo daude Autonomia Erkidegoan, eta 17 Deba arroan”

### TURISTAK

**“Kanpotik datozenak Euskal Herria gustuko dutelako etortzen dira landa-turismoetara, hau da, hemengo paisaia, eguraldia, gastronomia... gustuko dutelako”**

### OKUPAZIOA

**“Urtean, %25 egoten dira beteta landa-turismoak. Abuztuan eta Aste Santuan, osterara, ia beteta egoten dira”**

ezberdintasunik. Landa-turismoak baserriko beste lan batzuen osagarri dira. Nekazaritza-etxeetan, berriz, hortik bakarrik bizi dira jabeak eta ez baserriko beste lan batzuetatik. Geroago eta gutxiago dira nekazaritza-etxeak edo abeltzaintzatik bizi direnak. Edozein modutan ere, turistarentzat ez dago ezberdintasunik nekazaritza-etxeen eta landa-turismoen artean. Bestalde, nekazaritza-etxeetako turismo etxeek eskaini behar dituzten zerbitzuak Turismo sailak arautzen ditu. Esterako, gutxienez eta gehienez

zenbat lagunentzako tokia izan behar duen, gutxienez lo egiteko eta gosaltzeko zerbitzua eskaini behar dituela, sukaldeak zer motakoa izan behar duen... Laguntzak eta Nekazaritza Sailak bideratzen ditu. Zabalteko baimena, berriz, Turismo Sailak.

### Zuena moduko estatuko beste elkarte batzuekin harremanik baduzue?

Aurtengo maiatzetik, Asetur elkarteko kide ere bagara. Estatuko landa-turismo eta nekazaritza-etxeak batzen dira bertan. Elkarte honek bi egitasmo bultzatu ditu,

eta horiek guretzako oso interesgarriak dira. Alde batetik, estatuko hainbat tokitako landa-turismo eta nekazaritza-etxeen gaineko informazioa jasotzen duen web orrialdea: ecoturismorural.com. Bestetik, informazio hori biltzen duen liburuxka. Bi egitasmoak interesekoak ditugunez, elkarteko kide izatea erabaki berri dugu.

### Esan daiteke hemen beste inon baino landa-turismo edo nekazaritza-etxe gehiago dagoela?

Ez, batez beste antzera samar gaude tokienetan. Alde batetik, egia da, Andaluzian esaterako hemen baino gehiago daudela, baina logikoa da Andaluzia askoz ere handiagoa delako. Etxeen estiloari dagokionez badago alde: ez dira berdinak baserri bat eta kortijo bat, edo baserri bat eta pazo bat... Etxeak eta turista motak ezberdinak dira toki batzuetan eta besteetan.

### Euskadin zelako turismo mota dabil landa-turismoetan eta nekazaritza-etxeetan?

Urtean zehar egonaldiak bizpahiru egunekoak izaten dira, hau da, asteburu-koak. Abuztuan eta Aste Santuan egun gehiagokoak izan daitezke. Bestalde, gure bezeroen artean, %91 bertakoak edo estatuko beste toki batzuetakoak dira. Eta hauen artean, Euskadikoak %38 dira. Beste artean, kataluniarrak eta madrildarrak dira gehienak. Azkenaldian, bertakoak geroago eta gehiago dira. Gehienak gazteak dira: urtean zehar, jai egunetan, bikote gazteak, eta oporretan, umeak dituzten familia gazteak. Oro har, hirietan bizi den jendea joaten da landa-turismoetara.

### Eta zeren bila doaz turistak landa-turismoetara eta nekazaritza-etxeetara?

Kanpotik datozenak Euskal Herria gustuko dutelako etortzen dira: paisaia, eguraldia, gastronomia... Bertakoak, berriz, mendira joateko, ingurune polit eta lasaian atsedena hartzeko... Gero eta gehiago dira oporrek hilabete batean hartu beharrean, era sakabanatuagoan hartzen dituztenak, eta horrek erraztu egiten du landa-turismoetako turismoa.

### Kursaalaren kokatuta dago zuen elkarteko egoitza. Toki ezin hobea...

Bai, 1999ko uztailetik gaude hemen. Lehenago Garain, Bizkaian, izan ginen, eta baita Fraisoroko nekazaritza-eskolan ere, Zizurkilan. Gipuzkoako Diputazioak Nekazaritza Departamentuari esker gaude hemen, eta oso gustura gaude, oso egokia delako guretzat. Alde batetik, Euskal Herriak turismo tokirik baldin badauka hori Donostia delako eta, bestetik, erdigunean, jendeari gertu eta Turismo Kursaal moduko eraikin batean gaudelako. Kursaalaren era askotako kultur jarduerak, kongresuak, enpresa bilerak eta abar izaten dira. Ekitaldi horietara doazen asko gure egoitzatik pasatzen dira, eta nahi adina informazio jartzen diegu eskura. Lanarengatik Kursaalera etortzen diren asko, gero familiarekin joaten da landa-turismo eta nekazaritza-etxeetara. Argi dago, beraz, toki aproposagorik ez dagoela gure egoitzarentzat. Gure egoitza edo denda honetan ez ditugu erreserbak egiten, baina etxeak beteta dauden edo ez, eta harremanetarako telefonoa, helbideak eta gainerako informazioa eskaintzen dugu.

### Beste jarduerarik antolatzen duzue?

Bi helburu nagusi ditu Nekazalturismo elkarteak. Batetik, gure produktua ezagutzera ematea eta bultzatzea: gidak kalera-tuz, web orrialdean informazioa zabalduz, ferietan gure eskaintza erakutsiz eta abar. Bestetik, gure elkarteko bazkideei trebakuntza planak eskaintzea.

### Aisialdi eskaintza hau indarrean dago, baina okupazioa zenbatekoa da?

Urtean zehar, %25 egoten da beteta. Abuztuan, Aste Santuan eta zubietan, berriz, ia beteta egoten dira.

# JAIIAK Aramaio/Elgeta Eskoriatza

BEHIGARRI BEREZIA • 2001eko uztailaren 6a

SAN MARTINAK ARAMAION / SAN PEDROAK ESKORIATZAN / FERIXA NAGUSIA ELGETAN



ANDER GILNEA

## Jaiiak 2001



- ◆ **ESKORIATZA:** San Pedroak primerakoak izan dira aurten, denetik izan da eta.
- ◆ **ARAMAIO:** Motozerrarekin egindako eskulturek ikusmin handia piztu zuten.
- ◆ **ELGETA:** Ferixa Nagusi Egunean, domekan, jende piloak ibili zen herriko kaleetan.
- ◆ **BERGARA:** San Martzialeko zelaiak jendez gainezka beste behin.

**ALZA**

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paellaontzi itsasgaitzak

*Urte osoan dihardugun bezala San Pedrotan ere zuekin!*

# ESKORIATZA / San Pedroak



Beroa asetzeko, sagardo freskoa baino hoberik ez Euskal Jaian.

LOREA AGIRIANO



Umeen danborradak ikusmin handia sortu du aurten ere.

ANDER GILLENEA



Ekaitzaren Garrasia dantza ikuskizun ederra zapatu gauean.

ANDER GILLENEA



Kaleko salmahaietan denetik salgai.

ANDER GILLENEA



Musika ezinbesteko danborradar.

ANDER GILLENEA



Rapataplan! Hori da estiloa hori.

ANDER GILLENEA



Herri ekimenekin bat egiten dugu.

**ALFA DECO, S.A.**

CNC BIDEZKO DOITASUN-MEKANIZAZIOAK

PATZAGA industrialdea · 20690 ELGETA (Gipuzkoa) · Tel.: 943 78 91 17 / Faxe: 943 78 91 20

# ELGETA / Ferixa Nagusia



Go mailako rock kontzertuak izan ditugu Elgetako jaietan.

ANDER GILLENEA




Mozorroak ere nagusi jaietan. Ala benetako ijitoak ote? Zeinek daki...

IBAN ARANTZABAL



Elgetan ere danborrada izaten da ekitaldi nagusiena.

ANDER GILLENEA



Mariatxiek guztiak jarri zituzten dantzan.

ANDER GILLENEA



Bolo txapelketak ezin hutsik egin jaietan.

ANDER GILLENEA



Capia bai, baina brusa, non laga dok hik?

IBAN ARANTZABAL



*"Jaiak ondo baino hobeto pasatuko zenutelakoan, datorren urtera arte"*

ELGETAKO UDALA

# ARAMAIO / San Martinak



Zeinen antza jaukak horrek?... Motozerrarekin eskultura bikainak egin daitezkeela erakutsi zuten Berastegitarrek. ANDER GILLENIA



Herri olinpiadak Aramaion. Ondo pasatzea da kontua. ANDER GILLENIA



Motozerrarekin benetan iaioak. Denak ere aho zabalik geratu ziren. ANDER GILLENIA

# BERGARA / San Martzial eguna



Ohiko Agurrean, neskak eta mutilak protagonista... EDU MENDIBIL



... baina txistulariak ezinbesteko dantzarako. ENEKO AZKARATE



Zapatuan, goizean goiz, bergarar mordoia igo zen San Martzialera letania errezatzen. AINTZANE BIZIAR

# Goienka 2a

Egubakoitza / 2001eko uztailaren 6a

Kultura  
eta  
Aisialdia



Uztailaren  
6tik 13ra



## Udako Kultura ESKAIN TZA

**B**este jarrera batekin begiratzen diogu guztioak udari: presak eta lasterrak alde batera uzten saiatzen gara, eta bizimodua patxada handiagoz hartzen. Baina gure ohiturak eta bizimodu erritmoa ez dira uda iristerakoan aldatzen diren gau-

za bakarrak: herriko bizimodua ere aldatu egiten da. Gu beste umore batez gabiltzanez gero, herrian aukeran ditugun aisialdi eta kultura eskaintzak jarrera berri horrekin bat joaten dira. Baina eguzkiaren argitara eta berora martxa geldoagoarekin ibil-

tzen bagara ere, guztiz kontrakoa gertatzen da gure bizilekuetako kultura bizitzarekin: indarberritu egiten da. Aisialdi beharrei erantzuna emateko, hainbat ekin-tza antolatu dituzte bailarako herrietako udalek zein hainbat talde eta elkartek. /16

Kultura emanaldiak udan | Zinea, antzerkia, musika...

# Kultura, freskagarri onena udarako

DEBAGOIENKO HERRI GUZTIETAN IZANGO DA ZEREKIN GOZATU UDA PARTEAN, KULTURA EKITALDI ASKOTARIKOAK ANTOLATU DIRA ETA

**D**ebagoienetik alde egin barik, udan ondo pasatzea ez da gauza zaila, bailarako herri guztietan antolatzen dira eta hainbat ekitaldi: musika, zinema, erakusketak, antzerkia... eta asko, aire zabalean. Ez da ahaztu behar, gainera, Debagoiena jaietarako jantzen dela udan, auzoetako jaiak zela zela herrietako jai handienak direla eta.

## Arrasate

Musika, antzerkia eta margolaritza dira Arrasateko kultura eskaintzako protagonistak. Uztailako egun gau guztietan, doaneko zinema saioak izango dira Monterron parkean. *Matrix*, *Blade Runner* eta *Acorde y Desacuerdos* eskainiko dira; horietako bigarrena, gainera, jatorrizko bertsoan; kultuzko filma denez, batek baino gehiagok eskertuko du ingelesez ikusi ahal izatea.

Antzerkiaren eguna 20a izango da, *Gaitzerdi* taldearen saio batekin. Iazko *New York Fringe* jaialdian, antzerki koreografia onenaren saria irabazi zuen.

Musikazaleek denetarikoi doinuak entzun ahal izango dituzte: uztailaren 13an, Kultura Errotaren barne, *Arima Beltza* rock&blues taldearen emanaldia izango da, Ferrerriaren. Eta 24rako, nazioarteko folklore jaialdia antolatu du udalak. Aurten, *Gran Ballet Argentino* etorriko da Monterronera.

Arteari dagokionez, uztailaren 13tik 24ra, Luis Jabier Arrieta mondrogoetarren erakusketa izango da Harresi aretoan.

## Bergara

Uztailan, jazz kontzertuak izango dira egunero, *Igelaren Banda*, *The Big Jamboree*, *V.O.S. Quartet* eta *MacJeara's Band* taldeen eskutik. Doinu klasikoagoak gustukoago dituztenek, Bergarako Musika Bandaren kalejira eta kontzertuarekin gozatuko dute hilaren 15ean; eta baita abuztuaren 8an, Donostiako Musika Hamabostaldiaren barne, Massimo Nosetti organo jotzailearen kontzertuarekin ere. Folk musikarendako ere badago lekuri: uztailaren 20an, Ourenseko *Castro Floxo* taldeak eta *Xamatx* dantza taldeak bat egingo dute pilotalekuan jaialdia eskaintzeko. Gaztetxean, kontzertuak izango dira ia egunero, eta baita zinema emanaldiak ere. Eta zinemaz ari garenez, San Martin plazan ere, abuztuaren, euskarazko eta




Bossa Nova.



Igelaren banda.



La Tirili.



Arima beltza.

gaztelaniazko filmak eskainiko dira astero.

Uztailaren 8an, *Picor Teatro* konpainiak kale antzerkia eskainiko du. Eta kalean ibili barik, Kultura Etxean M<sup>a</sup> Carmen Laskurain margolariaren erakusketa izango da uztailaren 8a arte.

Jaizaleek hitzordu garrantzitsua dute Bergaran: San Martinak, irailaren 16an.

## Oñati

*Kalean!* izeneko programazioa antolatu dute, aurten seigarren aldiz, eta, izenak adierazten duen bezala, aire zabalean egiten dira ekin-tza gehienak, eguraldiak hala gura badu.

Musika eta zinema dira nagusi egitarauan. Abuztuaren 4an, gauez, *Bossanova* taldeak eta Ramón Leal eta Beatrice Binotti bikoak Brasilgo doinuak eskainiko dizkigute; eta irailaren 1ean, *Cognac&Miztura* taldeak funk eta musika beltzeko kontzertua eskainiko du.



Andramarixak Aretxabaletan.

Zinemari dagokionez, hilaren 25ean, euskal film laburren gauean, euskaraz zein gaztelaniaz egindako lanak izango dira ikusgai dira; abuztuaren azken gauean, *Tigre y Dragón* film taiwandarra eskainiko da. Eta abuztuaren 26an,

20:00etan, Gasteizko *La Tirili* taldeak *Misssh...eria* jokatu du, pilotalekuan.

Bestalde, ezin dugu ahaztu San Migelak, herriko jai nagusiak, izango direla irailaren 28tik aurrera, jada udazkena izan arren.

## Aretxabaleta

Ikastaroak eta zinema jaiekin eta mendi irteerekin tartekatzen dira. Uztailan, egunero, aire zabaleko zinema emanaldia izango da, *Matrix*, *La Amenaza Fantasma* edo *Snatch!* bezalako film arrakastatsuekin. Bestalde, Murruxiko mendi elkarrearen egoitzan, margo erakusketa izango da uztailaren 13tik 21era. Hilaren 28an, gainera, Murruxiko mendialdeak Felix Iñurategiri omenaldia egingo dio.

Gainera, bi jai handi izango dira Aretxabaletan: uztailaren 13tik 15era, Portasolekoak; eta abuztuaren 14tik 17ra, Andramaixak.

## Eskoriatza

Uztailako astelehen, eguzten eta egubakoitz gauero, zinema emanaldiak izango dira herriko plazan, 22:30etik aurrera, doan. Horrez gain, Andramariak ere ospatuko dituzte Gellaon eta Mazmelan.

## Antzuola

Udako jardura inportanteenariko bat jaien prestaketa izango da: Maiuaren Alarde ikusgarria, uztailaren 14an. Datorren eguneko Udabatzaren aureskua ere ikusgarria izaten da eta baita jaiei hasiera ematen dien ikurrin dantza ere.

## Aramaio

Kultura Etxe berria dute; hori dela eta, ospakizunak izango dituzte aramaioarrek. Uztailaren 7an, *Aukeraren* dantza taldeak *Sutargi* saioa eskainiko du, 22:30ean. Kultura Etxearen inaugurazioa gauerdin inguruan egingo dute. Irailerako, berriz, Patxi Villamorren emanaldia antolatu dute.

## Elgeta

Uztailaren 25ean, Santiago eguna ospatuko da Goimendin; abuztuaren 5ean eta 6an, Salbador jaiak izango dira Elgetan, eta irailaren 22an, udazken jaiak.

## Gatzaga

Leintz-Gatzagak jaiekin hasi zuen uda, eta amaitu ere, jai bidez amaituko du: irailaren 7tik 9ra bitartean, Dorletako Ama Birjinaren omenezko jaiak izango dituzte.

LEIRE KORTABARRIA



Kronika | Real Santa Cecilia mariatxiak Elgetan

# Y volver volver... volver...

**Non:** Elgetako plazan. **Noiz:** Ekainaren 13an, jaien egitarauaren barruan. **Sarrera:** 400 inguru. **Oharra:** Jendea mariachi gosez zegoen eta hori gogoratu zen.

Taldeek ez dute egunero entzuten "beste bat!, beste bat!" moduko eskaerak, eta are gutxiago emanaldi horiek plaza batean eta jende multzo ez oso heterogenoa denean. Elgetakoek, aldiz, ez zuten dudarik izan "Y volver volver" kantatzeko. Nola ez, mariachiek berriz ere taulara gaina hartu zuten.

Urrunetik etorri ziren, Netzacoalcoyalt herritik, Mexiko Hiririk 100 kilometrorra dagoen herritotik, eta lanera zetozela ez zuten dudarik. Arratsaldeko 8ak aldean ekin zioten lanari. Mikro barik, ahotsak distortsionatu zituen reverrik barik, eta ahots sendoz. Biolinak entzuteko ez zen egoerarik onena, baina inporta ere gutxi. Jendea mariachi gosez zegoen, eta txalo zaparrada ederrak hartu zituzten.

Biolinak aipatu ditugu eta ez garen gutxi, 6 biolin jotzaile zeuden, eta hiru tronpeta, bi gitarra, biuhela bat eta gitarra handi bat. Gainera 13 pertsona dira, baina Elgetara batek huts egin zuen.

Musikariari patroli den Santa Cecilia hartu dute izena, eta izen hori hartzeaz gain bazterretik bazter biltzen dira musika zaleen belaunaldiak asetzen.

Ekain, uztail eta abuztu artean emanaldi pilo bat dituzte egiteko, eta gure ibarrean ere egingo dituzte makinatxo bat. Charro estiloa lantzen dutela esan genezake, eta bertsiok hartzen dute emanaldiaren pisurik handiena. Tarteetan izaten dira, besteak beste,



Mexikotik etorri ziren eta elgetarrak dantzan jarri zituzten. Antza, rantxera gosez zegoen jendea. ANDER GILLENDA

Jorge Negreterenak, Pedro Infante eta Javier Solisena, edota Euskal Herrian hain ezagunak egin diren hainbat bolero, mariachi tradizional, musika latino eta abarrak.

Alemanian, Amerikako Estatu Batuetan edo Japonia moduko parajeetan ibilita ez zen gaitza izan Elgetako plaza irabaztea. Herriko danborrada amaitu eta berehala hasi ziren jotzen, eta segituan egin zuten lekua. Hasieran, jendeak, entzun bai baina kasu gutxi egin bazien ere, azkenerako dantza eta dantza egiten amaitu zuten herriko plazara gerturatutakoek.

Egia esan, beharbada watio falta izan genuen, eta ezin esan argizatze lanetan ere denbora

asko pasa zutenik teknikariek. Duten kalitaterako merezita dute berbenetarako erabiltzen diren fokotxoak baino gehiago, eta baita mikrografia berezia ere. Ambienteko mikroekin...

Ezin kexatu, bada, duten kalitateaz. Lola Beltrán eta bere alaba, Aída Cuevas, Lorenzo, Diana eta Rafael Negrete (Jorge Negrete mitikoaren seme-alabak)... denekin egin dute musika, eta horrek esangura du zerbait. Mundu osoan ezaguna den Guadalajara teatroan jotzetik, Elgetako plazan jotzera nabarmena izango zen aldea, baina hala ere ez zuten hutsik egin. Mexiko Hiriko Garibaldi plazan jardungo balute moduan jo zuten, bihotz eta arima.

13 mariachi, eta 100 kantutik gorako erreperitorioa zuten eta egoki aukeratutako emanaldia. Beharbada komertzialkerian jausi ziren emanaldiaren zati batzuetan, baina badakigu jakin, zenbat gustatzen zaigun denoi kantu ezagunak kantatzea.


Elgetarrek zein inguruetatik etorritako lagunek gozatu ederra hartu zuten mariachiekin, eta izango da inguruetan entzuteko aukera ere. Ahal baduzue, arratsalde partean egiten duten kalejira entzuteko gonbita egingo nizueke, beharbada emanaldi nagusia baino hobea.

IBAN ARANTZABAL

Nire aukera

## Jose Mari Baños Musikagile arrasatearra

Iron Maiden taldearen The Number of the Beast diskoa aukeratu dut. Berandu samar entzun nuen, 1987an-edo, diskoa 1982koa izan arren. Entzun nuenean txundituta geratu nintzen. Lehenengo abestia, Invaders, izugarria da eta diskoak, oro har, taldearen klasiko mordoa ditu. Gerora, Iron Maiden-en lan asko eskuratu ditut. Guztira, talde horren 30 bat disko ditut, bildumak, singleak eta disko piratak batuta.



## 'THE NUMBER OF THE BEAST' Iron Maiden



LEIRE KORTABARRIA

## Kaleratu berriak

Iban Arantzabal

LIBURUA | Nobela



**BIZIAK BIZILAN**  
Juan Manuel Extebarria  
Gaiurrean saila  
Ibaizabal

**L**iteratura bilduma berriekin ekiteko hiru liburu argitaratu dira. Etxebarriekin batera Aitor Aranaren eta Jose Mari Satrustegiren beste bi lan ere argitaratu dira. Izango dugu aukera horiek ezagutzeko. Eleberrri honetan, amama-iloba batzuen arteko elkarrizketa bidez, gaur bizi dugun belaunaldi-egoera ikus daiteke. Hiru belaunaldi daudela esaten da eta nola gaurko mundua atzokoren gainean eraiki dugun eta gerokoa aurrekoaren gainean egingo den.

KOMIKIA | Umorea



**TMEO**  
Israel ataca a los Palentinos  
64. zenbakia  
60 orrialde  
375 pezeta

**B**etiko moduan, oso azal erakargarriekin datorrigu TMEO, irudimen handikoa. Azalean fanzine onenaren saria irabazi dutela diote TMEOkoek. Hirurogeita laugarren alea da oraingoa eta 375 pezetaren truke barre algara ederrak egiteko aukera daukazu. Kontu bitxi asko, tartean euroa heltzen denean zer gertatuko den argitzen digu, euskaldunon monotema ere agertzen da, Euskal despistatuaren kronika, eta, horrela, betiko pertsonajeen bokadilloetatik hainbat eta hainbat egia.

DISKOA | Bluesa



**AURTENGOA GORAKADA**  
Gor  
Hainbaten artean

**O**hituta gauzka Gor zigiluak bere etxeko taldeekin egindako CD bilduma ateratzera. Aurtengoa bosgarrena izango da eta disko horretan irratan arrakasta duten kantuak daude, beharbada, diskoetxe horretako ezagunenak. Tartean dira Skalariak, Ken zazpi, Txapel-punk, Su Ta Gar, Cuerno de Chivo, Buitraker, Mad Bomber, Hemendikat; halaber, bederatzigarren kantua zuzeneko bideo batekin lagundua dator: Berri Txarrak taldearen *Betiko leloaren betiko leloa* kantua da, ederra benetan.

# Uztaila: 6-13

Edu Mendibil / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguzteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: [erredakzioa@goiena.com](mailto:erredakzioa@goiena.com) • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

## Musika

### ARRASATE

> **Arrasate Musikaleko Big Band** egubakoitzean, hilak 6, Hotel Mondragonen, 22:00etan.

> **Arima Beltza** taldea egubakoitzean, hilak 13, Ferrerías kaleko plazatxoan, 23:00etan.

### BERGARA

> **Mermald** eta talde gonbidatua egubakoitzean, hilak 6, gaztetxean, 23:00etan.

> **Fantomas eta Skin Dive** taldeak martitzenean, hilak 10, Jam aretoan, 21:00etan.

### SORALUZE

> **Tapia eta Leturia** laukotea eta **Pomada** zapatuan, hilak 7, San Andres auzoko jaietan, 23:00etan.

## Erakusketak

### ARAMAIO

> **Arabako Euskal Hotsak** erakus-

keta Sastiñan uztailaren 8a arte. Astebukaeran 12:30etik 14:30era eta 18:00etatik 20:30era.

### ARRASATE

> **Koldo Gojenolaren** margo erakusketa Toki-Eder kafetegian.

### BERGARA

> **Juan Jose Altuna Akizuren** margo erakusketa La Caixako bulegoan (Fraiskozuri, 7) abuztuaren amaiera arte.

## Lehiaketak

### ARRASATE

> **Jokin Zaitegi Itzulpen laburren XV. sariketa.** Lehiaketan edozeinek parte har dezake. Aurtengo gaia *Energia iturriak XXI. mendean* izango da eta lehiaketara munduko edozein hizkuntzatatik itzultako idazlanak aurkez daitezke. Testuaren luzera 15-30 orrialde bitartekoa izango da. Irabazleak 1.250 euro eskuratuko ditu eta bigarrenak, 625 euro. Lanak urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira. Argibide gehiago

AED elkartearen edo 943 77 12 28 telefonoan.

### OÑATI

> **San Migel jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketa.**

Lehiaketa honetan esku hartzeko oñatiarra izan edo Oñatin bizi beharra dago. Ezinbestekoa da ondorengo testua agertzea: *Oñatiko Jaixak 2001*. Irabazleak 40.000 pezetako saria jasoko du eta bigarren saria 20.000 pezeta

izango da. Lanak aurkezteko epea uztailaren 16a arte izango da zabalik Turismo Bulegoan edo kultura etxean.

## Ikastaroak

### OÑATI

> **Malabar salo eta tailerra** gazte-telekuan. Hankapaluak, mazak, diabolok, monozikloak, pilotak,

makila txinatarrak eta abar ikaste ko aukera. Saiok uztail, abuztu eta irailen egingo dira. Izena ematea uztailaren 9a baino lehen egin beharko da gazte-telekuan. Egutegia eta ordutegia uztailaren 9an bertan egingo den batzarrean zehaztuko dute.

### DEBAGOIENA

> **Udako Euskal Unibertsitateak** antolatzen dituen udako ikastarotan izena emateko epea zabalik



JAIK

## SAN KRISTOBAL JAIK BERGARAN

Angiozarrera bidean dagoen Aldaiegia auzoan San Kristobal jaiak ospatuko dira astebukaeran. Egubakoitzean, hilak 6, ohiko pinu jartzea eta auzokoentzako txokolatada egongo da 22:00etan. Zapatuan, Musutruk taldearekin dantzaldia 23:00etan. Domekan, hilak 8, eguerdiko 12:00etan meza nagusia eta ondoren autoen bedein-kapena. Jarraian luntxa jubilatuentzat eta amaitzeko Maite eta Enaitz trikitilarien saioa. Martitzenean, San Kristobal egunean, 12:00etan meza nagusia eta jarraian Maite eta Enaitz trikitilariaren erromeria. Gauean, 23:00etan, Imuntzo eta Belokirekin dantzaldia.

## LAIXAN EGUNA

Uztailak 7, larunbata

Unibertsitate aurrean

- Haur jolasak
- Herri bazkaria
- Izotz taldearekin erromeria...

Txartelak salgai 2.000 pta.tan ohiko tabernetan

Egun osoko jai




Laixan

Zeuria, neuria, geuria  
Euskeriaren arduria!

Deskontuak nahi dituzu?  
Edo **BENETAKO**  
preziorik onena?

Hasieratik preziorik onena nahi baduzu,  
**HALCON BIDAIA ETAN** baino ez duzu aurkituko.

iesklusiboa!



IRTEERAK BILBOTIK

### KANARIAK (7 gau)

	Hilabetea	Halcon-en prezioa	Beste agenciak
PUERTO DE LA CRUZ			
Orotava hotela**** (ME)	Uztaila	75.000	81.100
Orotava hotela**** (ME)	Abuztua	97.000	110.300
TENERIFEKO HEGOALDEA			
Park Troya hotela**** (ME)	Uztaila	74.600	80.700
Park Troya hotela**** (ME)	Abuztua	94.000	107.200

### LANZAROTE

Playa Dorada hotela**** (ME)	Uztaila	77.000	85.200
Playa Dorada hotela**** (ME)	Abuztua	109.500	116.800

### BALEARRAK (7 gau)

	Hilabetea	Halcon-en prezioa	Beste agenciak
PALMA MALLORCAKOA			
Sol Pinos hotela** (MO)	Uztaila	53.400	60.500
Sol Pinos hotela** (MO)	Abuztua	75.700	87.600
EIVISSA			
Fiesta Tanit hotela** (DB)	Uztaila	116.900	133.200
Fiesta Tanit hotela** (DB)	Abuztua	118.100	140.300

### MENORCA

Almirante Farragut hotela*** (ME) Uztaila	109.200	118.500
Almirante Farragut hotela*** (ME) Abuztua	131.400	146.600

## PREZIO ESCLUSIBOAK, UDA!!

### DOMINIKAR ERREP.

	Hilabetea	Halcon-en prezioa	Beste agenciak
PUNTA CANA (7 gau)			
Fiesta Bávaro hotela**** (DB) Uztaila	162.200	171.100	
Fiesta Bávaro hotela**** (DB) Abuztua	190.400	201.100	
PUERTO PLATA			
Fun Tropicale&Fun Royale*** (DB) Uztaila	129.900	161.200	
Fun Tropicale&Fun Royale*** (DB) Abuztua	151.400	173.700	
JUAN DOLIO			
Barcelo Embassy hotela*** (DB) Uztaila	131.000	-	
Barcelo Embassy hotela*** (DB) Abuztua	132.300	-	

### KUBA (7 gau)

	Hilabetea	Halcon-en prezioa	Beste agenciak
HABANA			
Deauville hotela*** (OG) Uztaila	128.200	-	
Deauville hotela*** (OG) Abuztua	143.600	-	
HABANA/VARADERO			
Deauville h.***/Dasis (OG/DB) Uztaila	140.400	-	
Deauville h.***/Dasis (OG/DB) Abuztua	152.800	-	

### CANCUN (Mexiko) (7 gau)

Club Playacar hotela**** (DB) Uztaila	190.600	208.400
Club Playacar hotela**** (DB) Abuztua	211.000	223.400

## IRAILEAN ETA URRIAN ERE BAI

...eta, gainera, TUNISIA, PRAGA, TURKIA, EUROPA... GALDETU!!

OHARRA: PREZIOAK 2001eko OPORETARAKO FOILETO ESCLUSIBOAN OINARRITUTA.  
BARN: HEGAZKINA, LEKUALDITZEAK, HOTELA, OTORDUAK KASU ETA ASEGURU BAKOITZAREN ARABERA.  
TASAK KANPO. GALDETU SASOIEI ETA HILABETE BAKOITZETako EGUN ZEHATZETI BURUZ.

**HALCON**  
BIDAIAK

Informazioa eta Erreserbak: 902 300 600

## Margo erakusketa

Mari Karmen Laskurainen margoak Bergarako kultura etxeko erakustokian.

Uztailaren 8a arte

# Zinema

### ARRASATE / ALAI ZINEMA

#### Evolution

Egubakoitza: 19:00, 22:00.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelhehena: 19:00, 21:30.  
Martitzena: 19:00, 21:30.

### ARRASATE / MONTEIRON

#### Matrix

Eguena, hilak 12: 22:30.

### BERGARA / NOVEDADES

#### La hora de la araña

Egubakoitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelhehena, ikuslearen eguna: 19:30.

#### El diario de Bridget Jones

Eguena: 22:15.

### OÑATI / SANTA ANA

#### Noviembre dulce

Egubakoitza: 22:30.  
Zapatua: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelhehena: 19:30.

### EIBAR

#### UNZAGA

#### Siempre a tu lado

Egubakoitza: 19:30, 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelhehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

### RIALTO

#### Amor, curiosidad, prozak y dudas

Egubakoitza: 19:30, 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelhehena: 19:30, 22:15.  
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

### ELGOIBAR / FORUEN PLAZA

#### 102 dalmatas

Zapatua: 22:30.

#### Miss Agente Especial

Egubakoitza, 13: 22:30.

### ELORRIO / ARRIOLA

#### El regreso de la momia

Zapatua: 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelhehena: 20:00.

### AZKOITIA / BAZTARTXO

#### El sastre de Panamá

Egubakoitza: 22:00.

Zapatua: 22:00.  
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.  
Astelhehena: 20:00.

### GASTEIZ

#### GURIDI

#### Evolution

Egubakoitza eta zapatua:  
17:30, 20:00, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 17:30,  
20:00, 22:30.

#### Pearl Harbor

Egubakoitza eta zapatua:  
17:00, 20:30, 00:00.  
Domekatik eguenera: 17:00,  
20:30.

#### El diario de Bridget Jones

Egubakoitza eta zapatua:  
17:00, 19:45, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 17:00,  
19:45, 22:30.

#### Arachnid

Egubakoitza eta zapatua:  
17:00, 01:00.  
Domeka: 17:00.  
Astelhehenetik eguenera: 17:30,  
20:00, 22:30.

#### Abierto hasta el amanecer 3

Egubakoitza eta zapatua:  
19:45, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 19:45,  
22:30.

#### El sastre de Panamá

Egubakoitza eta zapatua:  
17:00, 19:45, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 17:00,  
19:45, 22:30.

#### Spot

Egubakoitzatik eguenera:  
17:00.

#### El emperador y sus locuras

Egubakoitza eta zapatua:  
17:30, 20:00, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguaztenera: 17:30,  
20:00, 22:30.  
Eguena: 17:30.

### MIKELDI ZINEMAK

#### El regreso de la momia

Egubakoitza eta zapatua:  
17:15, 20:00, 22:45, 01:00.  
Domekatik eguenera: 17:15,  
20:00, 22:30.

#### Sin vergüenza

Egubakoitza eta zapatua:  
20:00, 22:45, 01:00.  
Domekatik eguenera: 20:00,  
22:30.

#### Arachnid

Egubakoitza eta zapatua:  
16:15, 18:15, 20:30, 22:45,  
01:00.  
Domekatik eguenera: 16:15,  
18:15, 20:30, 22:30.

#### El diario de Bridget Jones

Egubakoitza eta zapatua:

16:30, 18:30, 20:30, 22:45,  
01:00.  
Domekatik eguenera: 16:30,  
18:30, 20:30, 22:30.

#### El emperador y sus locuras

Eguenera: 16:30, 18:30, 20:30.

#### Amor, curiosidad, prozak y dudas

Egubakoitza eta zapatua:  
22:45, 01:00.  
Domekatik eguenera: 22:30.

#### School killer

Egubakoitza eta zapatua:  
16:30, 18:30, 20:30, 22:45,  
01:00.  
Domekatik eguenera: 16:30,  
18:30, 20:30, 22:30.

#### Tomb raider

Egubakoitza eta zapatua:  
16:30, 18:30, 20:30, 22:45,  
01:00.  
Domekatik eguenera: 16:30,  
18:30, 20:30, 22:30.

#### Rugrats en París

Eguenera: 16:15, 18:15.

#### Pearl Harbor

Egubakoitza eta zapatua:  
16:15, 19:45, 23:15.  
Domekatik eguenera: 16:15,  
19:30, 23:00.

#### Esa chica me pone

Egubakoitza eta zapatua:  
16:15, 18:15, 20:30, 22:45,  
01:00.  
Domekatik eguenera: 16:15,  
18:15, 20:30, 22:30.

### MIKELDI ZINEMA

#### La hora de la araña

Egubakoitza: 17:30, 20:00.  
Zapatua eta domeka: 20:30,  
22:30.  
Astebarruan: 20:00, 22:30.

#### Manolito Gafotas:

#### ¡Mola ser jefe!

Zapatua eta domeka: 16:30,  
18:30.  
Astelhehenetik eguenera: 17:30.

### FLORIDA-GURIDI

#### Blow

Egubakoitza eta zapatua:  
17:30, 20:00, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 17:30,  
20:00, 22:30.

#### Sin vergüenza

Egubakoitza eta zapatua:  
17:00, 19:45, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 17:00,  
19:45, 22:30.

#### El cisne mudito

Egubakoitza eta zapatua:  
12:30, 17:30, 20:00, 22:30,  
01:00.  
Domekatik eguenera: 12:30,

17:30, 20:00, 22:30.

#### Más pena que gloria

Egubakoitza eta zapatua:  
17:00, 19:45, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 17:00,  
19:45, 22:30.

#### Siempre a tu lado

Egubakoitza eta zapatua:  
17:00, 19:45, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 17:00,  
19:45, 22:30.

#### Tiempos de azúcar

Egubakoitza eta zapatua:  
17:30, 20:00, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 17:30,  
20:00, 22:30.

#### Asesinato en febrero

Egubakoitza eta zapatua:  
20:00, 22:30, 01:00.  
Domekatik eguenera: 20:00,  
22:30.

#### Los cachorros de Buddy

Egubakoitzatik eguenera:  
12:30, 17:30.

### STER ZINEMAK

#### Pearl Harbor

Eguenera: 12:00, 17:00, 20:30,  
00:00 (gauekoa).

#### Tomb Raider

Eguenera: 12:40, 16:20, 18:30,  
20:40, 22:50, 01:00 (gauekoa).

#### Evolution

Eguenera: 12:30, 16:30, 18:45,  
20:55, 23:05, 01:10 (gauekoa).

#### Spot

Eguenera: 12:20, 16:25, 18:35.

#### El emperador y sus locuras

Eguenera: 12:10, 16:10, 18:05,  
20:00.

#### Siempre a tu lado

Eguenera: 20:50, 22:55, 01:05  
(gauekoa).

#### La hora de la araña

Eguenera: 22:00, 00:25  
(gauekoa).

#### El diario de Bridget Jones

Eguenera: 12:25, 16:15, 18:25,  
20:45, 22:50, 1:00 (gauekoa).

#### Rugrats en París

Eguenera: 12:15, 16:35, 18:25,  
20:15.

#### Blow

Eguenera: 22:05, 00:35  
(gauekoa).

#### El regreso de la momia

Eguenera: 12:05, 16:00, 18:40,  
21:15, 00:15.

Goizeko emanaldiak zapatuan  
eta domekan.

Gauekoak egubakoitzean eta  
zapatuan.



### LA HORA DE LA ARAÑA

ZUZENDARIA: LEE TAMAHORI.

AKTOREAK: MORGAN  
FREEMAN, MONICA POTTER,  
MICHAEL WINCOTT.

James Patterson idazlearen nobelan oinarritutako filma. Alex Cross polizia eta psikologoa da protagonista nagusia. El coleccionista de amantes filmean, Morgan Freeman aktoreak pertsonaia bera interpreta-tu zuen. Orain, Alex Cross detektibeak erretiratzea erabaki du, bere lankidearen heriotzaren ondoren. Hala ere, bahiketa kasu bat ikertzeari ekingo dio Jezzie Flannigan (Monica Potter) agentearen laguntzarekin. Gary Soneji gaizkileak (Michael Wincott) plan maltzurra abiaraziko du, Cross detektibearekin bere arma-sarean erro dadin...

### EVOLUTION

ZUZENDARIA: IVAN REITMAN.

AKTOREAK: DAVID DUVOCHNY  
JULIANNE MOORE, ORLANDO  
JONES, SEAN WILLIAM SCOT.

Expediente X telesailko Mulder agentea (David Duchovny) da filmeko buru. Lurrera erori den meteorito batek bizitza estralurtarra dakar berarekin. Zientzialari batzuk alienen planak geldiarazten saiatuko dira, gizakien eboluzioa arriskuan dago-eta. Istorio umoretsua.

eta 23:00etan gaztetxeak anto-latutako kontzertua Beheko auzoko kirol eremuan.

### OÑATI

> Laixan Eguna zapatuan, uztailak 7, unibertsitate aurrean. Goizeko 11:00etan haur jolasak, 12:00etan txupinazioa,

eta gero txikiteoa, trikitalariek alai-tuta. 14:30etan herri bazkaria. Bazkalostean euskal kantua, bertsolariak, poesia errezitaldia, txalapartariak, piropo lehiaketa, mus txapelketa eta dantzariak. Arratsaldeko 20:00etatik goizaldera arte Izotz taldearekin erromeria.





## LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 • ARRASATE  
943 79 27 27 • 943 79 13 55

Eguraldia



ASTEKO BATEZ BESTEKO TEMPERATURA

19°C

ZAPATUA, 7

DOMEKA, 8

Oso lainotuta egongo dira zeruak zapatuan, eta euri txikia egingo du. Temperatura ez da aldatuko; aldatzekotan, gora egin dezake.

Domeka ere egun lainotsua izango da, eta euri txikia egingo du. Temperaturak behera egingo du. Haizea mendebaldetik ibiliko da.

Nafarroako Erribera:

Zaparradak.
Errioxa: Egun euritsua.
Pirinioak: Zaparradak.

Nafarroako Erribera:

Egun euritsua.
Errioxa: Zaparradak.
Pirinioak: Egun euritsua.

ILARGIAREN ALDIAK: UZTAILA



EGUZKIA: UZTAILA 8a



Urkuluko urtegia

Mezak

Berriro ere behera egin du ur mailak Urkuluko urtegian. Ez da harritzekoa, azken aste honetan egin duen eguraldia kontuan hartzen baldin badugu. Joan zen astean %90,19 zen; oraingoan, ostera, %88,97 da urtegiaren maila.

%89

ARANTZAZUKO SANTUTEGIA

Astegunetan 08:30, 12:00.
Zapatuetan 08:30, 12:00, 19:30.
Domeka eta jaiegunetan 09:00, 10:00, 12:00 (nagusia), 13:15 (gaztelaniaz, Kriptan), 17:30.

Telefonoak

((112))
SOS DEIAK

Table with 2 columns: Location, Phone number. Includes Bergara, Elgeta, Eskoriatza, Leintz Gatzaga, Oñati, Hies Ekimena, Udaltzaingoak.

Table with 2 columns: Location, Phone number. Includes Bergara, Eskoriatza, Aretxabaleta, RENFE.

DEBAGOIENA

Table with 2 columns: Location, Phone number. Includes Mankomunitatea, Abere hiltzaria, Mendi nekazaritza, Nekazaritza Ganbera, Kapirixo, Zerga Bulegoa, Euskara Taldeak, Debagoine, Arrasate / AED, Aretxabal / Loramendi, Bergara / Jardun, Eskoriatza / Axtroki, Oñati / Laixan, Hondakindegia Alternatiboak, Arrasate, Bergara, Oñati, Kiroledegia.

GARRAIOAK

Table with 2 columns: Location, Phone number. Includes Eusko Trenbideak, PESA, Taxiak.

OSASUNA / LARRIALDIAK

Table with 2 columns: Location, Phone number. Includes DIA (Orokorra), DIA (Antzuola), Gurutze Gorria, Suhiltzaileak, Ertzaintza, Arrasate, Bergara, Oñati, Osasun Etxeak, Arrasateko Ospitalea, Antzuola, Aramaio, Aretxabaleta.

Zozketak

Table with lottery results: BONOLOTOA, LOTERIA PRIMITIBOA, ONCE. Includes EGUAZTENA 4, MARTITZENA 3, ASTELEHENA 2, EGUBAKOITZA 27, Saritzarra, DOMEKA 1, ZAPATUA 30, EGUENA 28, Kupoitzarra.

Autobusak

PESA 902 10 12 10

A: Astegunak / Z: Larunbatak / J: Jaiegunak eta igandeak

Table with bus routes: DONOSTIA-GASTEIZ, BERGARA, ARRASATE, ESKOLA P., ARETXABALETA, ESKORIATZA. Includes departure times for various destinations.

Table with bus routes: GASTEIZ-ARRASATE-BERGARA-EIBAR-DONOSTIA, GASTEIZ, ESKORIATZA, ARETXABALETA, ARRASATE, BERGARA. Includes departure times.

Table with bus routes: DONOSTIA-BILBO, DONOSTIA, ANTZUOLA, BERGARA, ELGETA, BERGARA-OÑATI. Includes departure times.

Table with bus routes: BILBO-DONOSTIA, BILBO, ELGETA, BERGARA, ANTZUOLA, OÑATI, BERGARA. Includes departure times.

Table with bus routes: OÑATI-ARRASATE-BILBO, OÑATI, ARRASATE, BILBO, ARRASATE, OÑATI. Includes departure times.

Table with bus routes: BERGARA-ARRASATE-BILBO, BERGARA, ARRASATE, BILBO, ARRASATE, BERGARA. Includes departure times.

Table with bus routes: BERGARA-OÑATI-ARRASATE-ARETXABALETA-ESKORIATZA, BERGARA, OÑATI, ARRASATE, ARETXABALETA, ESKORIATZA. Includes departure times.

Table with bus routes: ESKORIATZA-ARETXABALETA-ARRASATE-OÑATI-BERGARA-EIBAR, ESKORIATZA, ARETXABALETA, ARRASATE, OÑATI, BERGARA. Includes departure times.

Erakunde hauen laguntzaz



Arrasateko Udala, Aramaioko Udala, Aretxabaletako Udala

Eskoriatzako Udala, Leintz Gatzagako Udala, Antzuolako Udala

Table with bus routes: BERGARA-ANTZUOLA-IRUÑEA, IRUÑEA-ANTZUOLA-BERGARA-EIBAR, BERGARA, ANTZUOLA, IRUÑEA, ANTZUOLA, BERGARA. Includes departure times.

Hitz gezidunak

Luma		Batzearen emaitza	Egitekoak	Pl., Italiako dirua
		Txalupa	Txiki	
		Bular mutur		
		Edari alkoholduna		
Zurgin- lagiak	Izena			
Defutura	dauzka			
Zango- atala			Iparre- tarrak	
Doi			Diosala hitza	
			Lehena eta azkena	Moluskuen gai gogor
			Moztu	
Istu		Gaur		
Egile ezkizia		Pozik		
	Itsas arraina			
	Garai			
Honda- menak				
Italiako hiria			Errep., gorotza	
			H <sub>2</sub> O	
Eme!		Uranioa		Röntgen
Eguzki		Bokala		Tona
		12 hileko epe		



Umore giroan

Aitor Muruamendiaraz

FRIGORIFIKUA EROSTERA

Bazan mendi puntan bizi zan baserritar bat eta halako baten propaganda orri bat heldu jako etxera: "Frigorifikuak salgai, punta-puntuak...". Eta, "Joño, erosi bihar juat, ba, bajaukat premiña- eta...", esan dotsa bere buruari. Heldu da zapata eta jeitsi da kalera. Sartu da etxetresna elektrikuen dendara eta esan dotsa dendarixari:

- Hi, emoidak frigorifiko bat, daukakenik onena, hemen propagandan agertzen da modukua!

Erakutsi dotsa dendan zeukan modernuena eta hasi jako esplikatzan zela fun-

tzionatzen daban. Hartu dau entxufia eta:

- Ikusten dittuk adar bi honek? Ba, bi zulotan sartu bihar dittuk. Beste apal honetan ura, ardoa... nahi dokena. Beste kajoi honetan, ostera, frutia, barazkixak...

Eta, baserritarrak:

- Egon, egon, egon, hemen bajarek zulo txiki honek..., hemen zer sartzen dok, ba?

Saltzailliak:


- Hemen, arrautzak.

Eta baserritarrak:

- Arrautzak?, bai zera, gero zela zabalduko juat atia, ba, hemen arrautzak sartzen bajittuat!

Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



60 etxebizitza baino gehiagoko ataririk bai?

**D**ebagoienean ere badira etxe-bloke handiak. Baina desango ote zenuke atari berean 60 etxebizitza baino gehiago dituen etxerik baden?

- Ez dago.
- Arrasaten eta Bergaran daude.
- Arrasaten bakarrik dago.

Erantzun zuzena: Arrasaten eta Bergaran daude.

Soluzioak



E	T	U	•	I	K	E
R	•	U	•	A	D	•
A	•	N	•	L	V	M
K	•	A	•	L	E	•
V	•	N	•	A	T	•
N	•	U	•	E	•	•
•	Z	•	V	•	Z	•
K	•	A	•	N	•	•
A	•	K	•	R	•	•
R	•	U	•	P	•	•
I	•	T	•	I	•	•
L	•	A	•	T	•	•
•	•	B	•	•	•	•

Horoskopoa

Gipuzkoako Astrologi Elkarte

ARIES

martxoak 21-apirilak 21



Hausnartzeko eta etorkizunerako erabakiak hartzeko bakarrik egon nahi duzula? Ondo dago, baina hori ez da inorekin haserretzeko arrazoia.

TAURUS

apirilak 22-maiatzak 21



Une egokia da aurretik egindakoaren emaitzak biltzeko. Harremanen bat hasi edo indartzeko aukera.

GEMINI

maiatzak 22-ekainak 21



Birmoldatu itzazu zure asmoak behar beste, arrakastatsuak izan daitezten. Ez da denbora galtzea izango, zure helburuak lortzen lagunduko dizu horrek.

CANCER

ekainak 22-uztailak 22



Esku artean duzuen horretan zuk egindakoak ez zaitu asetzen. Zure ustez, ez zaituzte kontuan hartu merezi zenuen beste. Ondo pentsatu guztia utzi aurretik.

LEO

uztailak 23-abuztuak 22



Segi gogor lanean zure helburuak lortzeko, gutxien espero duzunen saria eskuratuko baituzu.

VIRGO

abuztuak 23-irailak 22



Ez ibili bueltaka gauzekin eta gozatu orain arte lortutakoarekin. Estimatu daukazuna.

LIBRA

irailak 23-urriak 22



Ondo dago jendearekin lan egitea gustuko izatea, eta traturako daukazu gaitasuna lantzea, baina ikas ezazu erabakiak zuk zeuk hartzen eta ondorioei aurre egiten.

SCORPIUS

urriak 23-azaroak 22



Oso pozik zaude zeure buruarekin eta zeuk lortutakoarekin. Erabili atsedena egunerokotasunetik aldentzeko eta indarbertitzeko.

SAGITTARIUS

azaroak 23-abenduak 21



Ez etsi gauzak ez direlako izan zuk uste bezala, eta erabili atzerapen hori hausnarketarako. Ikasi zure akatsetatik asmoak hobetzeko.

CAPRICORNUS

abenduak 22-urtarrilak 20



Zure arazoaren errua ez da besteena. Pentsatu zer egin dezakezun horiek konpontzeko.

AQUARIUS

urtarrilak 21-otsailak 20




Zalantza asko daukazu nahi duzunen inguruan. Ez ezazu erabirik hartu guztia erabat argi eduki arte. Hausnartu lasai.

PISCIS

otsailak 21-martxoak 20





Orain artekoa ona den arren, ez lasaitu gehiegi. Gozatu baina egin beharrekoa utzi gabe.



GIPUZKOAKO  
ASTROLOGI ELKARTEA

Bila-bila 7



## JAIOTAKOAK

**Xabat Askasibar Baleztena** Antzuolan, ekainaren 18an.  
**Maite Sancho Arakistain** Bergaran, ekainaren 22an.  
**Naiara Da Silva Rodriguez** Arrasaten, ekainaren 22an.  
**Oihane Etxeberria Redondo** Bergaran, ekainaren 23an.  
**Gaizka Etxeberria Redondo** Bergaran, ekainaren 23an.  
**Bittor Zubiagirre Anduaga** Oñatin, ekainaren 26an.  
**Adrian Sanchez Heis** Bergaran, ekainaren 26an.  
**Mikel Moñux Ibarra** Bergaran, ekainaren 26an.  
**Carmensara Cuevas Primoy** Arrasaten, ekainaren 27an.  
**Ainhoa Sanchez Henao** Bergaran, ekainaren 28an.  
**Lucia Robla Rodriguez** Bergaran, ekainaren 28an.  
**Alaitz Beloki Fernandez** Eskoriatzan, ekainaren 28an.

## EZKONTZAK


**Fulgencio Garcia Santana** Arrasaten, ekainaren 28an, 89 urte zituela.  
**Jose Leon Jauregi Gantxegi** Bergaran, uztailaren 1ean, 94 urte zituela.  
**Juan Arrocha Garcia** Arrasaten, uztailaren 2an, 60 urte zituela.  
**Gregorio Roldan Calvo** Arrasaten, uztailaren 3an, 88 urte zituela.  
**Rosario Arregi Gaztelurrutia** Arrasaten, uztailaren 3an, 91 urte zituela.  
**Zigor Bengoa Barandiaran** Aretxabaletan, uztailaren 3an, 27 urte zituela.  
**Eugenia Martin Jimenez** Arrasaten, uztailaren 4an, 93 urte zituela.

## HILDAKOAK

**Luis Manchon Fernandez** eta **Rosa Castro Orellana**, ekainaren 23an, Bergaran.  
**Aniotz Gabilondo Garmendia** eta **Ane Miren Iturriaga Igarza**, ekainaren 29an, Antzuolan.  
**Mikel Elorza Zubizarreta** eta **Susana Gorostidi Salinas**, ekainaren 30ean, Aramaion.  
**Ignacio Barrutia Ibarrola** eta **Eva Aranzabal Alkorta**, ekainaren 30ean, Bergaran.  
**Juan Carlos Zubia Berriozabal** eta **Maria Jesus Menoyo Agiriano**, uztailaren 3an, Arrasaten.



**Bittor Zubiagirre Anduaga** oñatiarra, ekainaren 26an jaio zen, eta 3,300 kilo pisatu zuen. **Belen** eta **Andres** dira gurasoak, oñatiarrak eurak ere.



**Mikel Moñux Ibarra** eta **Rafa** aita, bergararrak biak. Mikel ekainaren 26an jaio zen, eta 3,380 kilo pisatu zuen. **Nere** da ama, bergararra bera ere.



**Irati Irazabal Urizar** eta **Amaia** ama, elorriarrak biak. Ekainaren 26an jaio zen Irati, eta 3 kilo pisatu zuen. **Jabier** da aita, elgetarra.



**Martin Mendibil Kortabarria** eta **Idola** ama, elorriarrak biak. Martin ekainaren 26an jaio zen, eta 3,800 kilo pisatu zuen. **Roberto** da aita, Arrazolakoa.



**Nahia Aranguren Garai** elorriarra eta **Amaia** ama, mondragotarra hau. Nahia ekainaren 28an jaio zen, eta 3,250 kilo pisatu zuen. **Asier** da aita, atxabaltarra.



**Lucia Robla Rodriguez** bergararra eta **Mada** eta **Rafa** gurasoekin; ama bergararra da, eta aita, berriz, atxondoarra. Ekainaren 28an jaio zen Lucia, eta 2,980 kilo pisatu zuen.



**Ainhoa Sanchez Henao** bergararra **Anabel** eta **Diego** gurasoekin. Anabel Extremadurakoa da, eta Diego, berriz, bergararra. Ainhoa ekainaren 28an jaio zen, eta 3 kilo pisatu zuen.



**Oihane** (2,700 kilo) eta **Gaizka** Redondo Etxeberria (2,600 kilo) bergararrak, **Ana Mari** eta **Marina** amonekin. Oihane eta Gaizka ekainaren 23an jaio ziren. Gurasoak **Jesus Mari** eta **Inma** dira, bergararrak biak.



**Guadalupe Vazquez** eta **Antonio Romero** aretxabaletarrek joan zen martitzenean bete zituzten 25 urte ezkontuta. 1976ko uztailaren 3an ezkondu ziren Arantzazun, eta Tenerifera joan ziren eztei-bidaian. Orain, berriz, 25 urte geroago, Ibizan egon dira. Joan zen ekainaren 23an bazkaria izan zuten senitartekoein, urteurrena ospatzeko. Datorren zapatuan, berriz, afaria izango dute lagunekin. Zorionak, bikote, auzoko lagunentz partez!



**Matilde Galdosek** eta **Julian Gorosabelek** urrezko ezteiak ospatuko dituzte uztailaren 7an. Orain dela 50 urte ezkondu ziren, eta eztei bidaian Zaragozan eta Iruñean izan ziren. Argazkian, Matildek Julen biloba du besoetan. Bazkaria egingo dute Zelai Zabal jatetxean. Ondo pasatu, eta zorionak etxekoentz partetik.



San Fermin egunean ezkontuko dira **Marta** mondragotarra eta **Rikar** bergararra, bihar, hain zuzen ere. Zorionak, bada, bikote, eta urte askotarako!

## URTEURRENA

### Angel Aranguren Pildain

Lehen urteurreneko meza domekan, uztailak 8, 13:00etan, Bergarako Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldeztu aurretik eskerririk asko sendikoen izenean.*



## Atzeskua

MAIDER OSA

# Andres Arlazon/Argazkilaria eta kazetaria ohia

### Palentziar oñatiar-tua?

Sortzez palentziarra naiz, Villabermudoko a, baina Oñati da nire herria. Hamalau urte nituenetik nago hemen. Gerra ostean, militarren tren batean Irunera heldu nintzen. Familiarteko guztiak hil zitzaizkidan gerran, eta militarrek geratu nindutenean esan nien Irunera nindoala izaba baten bila. Irunen trena hartu eta Oñatiraino heldu nintzen. Ama Birjinaren eguna zen.

### Zer da argazkilaritza zuretako?

Bizitza erdia. Soldadu-

tzara joan aurretik hasi nintzen argazkiak ateratzen, 18 bat urterekin. Ez nuen inolako ikasketarik, baina ekitaldi garrantzitsuren bat edo festaren bat zenean han izaten nintzen, ikusten nuen guztia koadernotxo batean apuntatu eta argazkiak ateratzen. Egun batean, Diario Vasco egunkariko Vicente Escuderoni gustatu egin zitzaion nola egiten nuen lan, eta egunkarian lanean hasteko gonbita egin zidan. Berrogeita hamar urtez jardun dut lanean, eta 7.500 kronika inguru eta 10.000 argazki baino gehiago atera ditut. Horieta asko

12 liburutan jaso ditu Jabier Arriaranek.

### Ordutik hona asko aldatu da lan egiteko modua?

Hasi nintzenean, argazkiak eta kronikak Diario Vasora bidaltzen nituen, ezer kobratu barik. Gero, Escudero argazkilaria txartela eman zidan. Orain, berriz, asko aldatu da lan egiteko modua. Ordenagailuek asko errazten dute lana.

### Baina zure lehenengo lana beste bat izan zen.

Olabarrieta auzoko baserri batean hasi nintzen lanean. Mutiko guztiak euskaraz berba egiten zuten, eta nik ez nekien ezer. Gizon bat gerturatu eta baserrirako mutila behar zuela esan zidan. Izugarri poztu nintzen. Soldatarik ez nuen, baina han jasotako eskupekoekin lehen argazki-kamera erosi nuen; hamazazpi bat urterekin erosi

nuen, eta 1.280 pezeta ordaindu nituen. Urbiarako bidean galdu nuen kamera hura.

### Oñatiko Udalean zinegotzi izana zara.


Zortzi urtez. Eta bihotzeko arazoak izan nituelako, osterantzean luzaroago jardun izango nukeen-eta.

### Omenaldia ere jaso berri duzu Oñatiko Udalaren eskutik. Zer esan gura du horrek zuretako?

Oso ondo egon zen. Jende ugari etorri zen, eta miresten nauen herri baten maitasuna sentitu nuen.

### Bost hamarkadatan egindako lan guztia Oñatiko udal agiritegiari eman diozu.

Oñatiko seme sentitzen naiz, eta izugarrizko poza eman dit nire lan guztia udal agiritegiaren esku uzteak. Horrela, gerora ere jendeak izango du nora jo informazio bila.



**“Lehen argazki-kamera hamazazpi bat urterekin erosi nuen, 1.280 pezeta ordaindu nituen”**

**“Omenaldian, miresten nauen herri baten maitasuna sentitu nuen”**

**“Oñatiko seme sentitzen naiz, eta izugarrizko poza eman dit nire lan guztia udal agiritegiaren esku uzteak”**

► Oñatiarra / 72 urte / Argazkilaria

## AIPAGARRI



**IÑAKI IRIZAR**  
Bergara / Biologoa

Bisoi europarra, mundutik desagertzeko arriskuan dagoen karniboroa Goierri' egitasmoari eman diote Gerriko Ikerketa-Beka saria. Proiektuaren egileetako bat Iñaki Irizar bergararra da. Milioi bat pezetako laguntza izango dute lana egiteko, eta, halaber, lanarekin liburua argitaratuko da. Goierriko Euskal Eskola Kultura Taldea izan da ikerlan-bekaren antolatzailea.



**JOKIN ZUBILLAGA**  
Antzuola / Aktorea

Aktorea titulua jarri diogu. Aizan ere, film labur batean egindako lanagatik nabarmendu nahi izan dugu. Hain justu, Juanan Urkola bidegilearen Making off film laburrean esku hartu du. Egunotan grabatu dute eta Jokinek film bateko zuzendari laguntzailearen papera egiten du. Castingera aurkeztu eta bera aukeratu zuten rol horretarako.

**PASCUAL UNITEC**  
TELEKOMUNIKAZIOAK

Arrasate, 4. 20005 Donostia Tel. 943 42 04 28 eta Madril hiribidea 13.

**Aurrerantzean baita Bergaran ere**

**LASTER ZABALIK**

**Ibargarai, 5.**

Tel. 943 76 97 07 - 08 - 09

Zatoz, aldatu zure puntuak eta eraman ezazu momentuan bertan sakeleko telefono berria.



**Zure aholkularia**  
**Telekomunikazioetan**

Banatzaile ofiziala

**Telefonica**  
**Movistar**